


The background features a complex, abstract geometric pattern. It consists of various polygons such as squares, rectangles, and trapezoids, all outlined with a thick, dark brown border. The colors used for the shapes include shades of brown, tan, yellow, orange, olive green, and grey. The overall effect is reminiscent of a stained-glass window or a mosaic.

2009-ko
Memoria





2009-ko

Memoria

Aurkibidea

Federazioko kideak

8. orrialdea

Gobernu Organoak

10. orrialdea

Federazioaren jarduerak

12. orrialdea

Lankidetzaren kontsortzialesko jarduerak

24. orrialdea

Informazio ekonomiko-finantzarioa

30. orrialdea

Dimentsio soziala

54. orrialdea

Egoera finantzario publikoak

60. orrialdea

Aurkezpena

Gasteiz, 2010eko apirila

Ezaugarri nagusi gisa aldaketa etengabeak eta oso bizkorak izan dituen 2009. urtean zehar ikasi ahal izan ditugun irakaspen ugarien artean, azpimarratzeko modukoa da sistema finantzarioaren egonkortasuna ez dagoela inolaz ere bermatua, ez mundu-mailan, noski, baina, hedapenez, ezta gure hurbileneko jardun-eremuan ere. Inor gutxi izan zen gai 2008an bat-batean nabarmendu zen krisiaren intentsitatea, garrantzia, iraupena eta efektuak aurreikusteko. Baina krisiak jarraipena izan du, zoritxarrez, aurtengo ekitaldian ere, eremu finantzarioari bezala baita ekonomia erreala ere erasanez, eta beraz, enpresek, familiek, erakundeek, kontsumitzaileek nahiz inbertsiogileek, den-denek jasan dituzte krisiaren ondorioak. Bere epizentroa sistema finantzarioaren konfiantzan eta arauetan bertan zuen *tsunami* izugarri baten moduko zerbait pairatu behar izan dugu. Eta horrexegatik, historia modernoan ez parekorik ezta aurrekaririk ere gabeko esku-hartze masibo eta koordinatua behar izan da, agintari ekonomiko eta monetarioen aldetik, nazioarteko sistema osoaren kolapsoa eta gainbehera saihesteko.

Zurrumbilo horrek nazioarteko arkitektura finantzario osoa jarri du zalantzan, gure egunotan oraindik bizi-bizirik dirauen gogoeta eta berrantolaketako prozesu bat abian jarritz. Azken hilabeteotako historiak nabarmen jarri du erregulazioko sistemaren oinarriak funtsetik aztertu nahiz berrikustearen premia eta zuhurtziazko gainbegiradaren beharra, beste puntu batzuen artean erakunde finantzarioen kaudimen eta likideziarekin lotutako hainbat alderdi konpontzen saiatuz. Ildo horretan txertatzen dira Europa mailako banku-agintarien, aseguru eta pentsioen eta balore nahiz merkatuen European Systemic Risk Board izenekoaren sorrera bezalako ekimenak.

Aurreko ekitaldian ezarri eta finkatutako krisi ekonomikoak aurrera jarraitu du baita 2009an zehar ere; baina, hala ere, ekonomia nagusietako agintari ekonomiko eta monetarioen ahalegin bateratuari esker, susperraldiaren aurreneko zeinuak agertu ziren urtearen azken aldera, zeinu horiek herrialde garatuetan eta herrialde emergenteetan oso eragin diferentea izan duten arren.

Behin berriz, eta bizi izandako testuinguruan aipatutako zailtasun horien guztien gaineratik, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek 2009an izan duten jarduera gogobeteko eta positibotzat jo behar da, sektoreak izan duen eboluzioari dagozkion termino eta mugei begira betiere. Inbertsio produktiboak, etxebizitza eta kontsumoa, oro har, finantzatzeko beharrezko baliabideak eskaintzeko beren lanean jarraitu dute Federazioko erakunde kideak, ekitaldiaren amaieran, 57.388 milioi euroko kredituak gauzatu guztira, aurreko urtean baino % 1,3 gehiago. Bestalde, administratutako baliabide komertzialak, guztira, 63.410 milioi euroraino iristen dira, eta horrek % 3,7ko hazkundea esan nahi du.

Baliabide propioak 7.339 milioi eurotan daude kokatuak, % 4,9an indartu edo sendotu eta gero, Aurrezki Kutxa kideek euren kaudimenaren alde egindako kapitalizazioko ahalegin garrantzitsuen adierazgarri gisa. Kutxen kaudimeneko koefizientea % 17an dago gaur egun, sektorearen batez bestekoaren oso gainera. Berankortasun-indizea, bere aldetik, sistema espainoleko txikienetako bat da, % 2,42koa hain zuzen ere, eta estaldura-tasa % 83,8raino ailegatzen da..

Lortutako emaitzek aurrerapausoak erakusten dituzte batez besteko aktibo totalei begira, bai interes-marjina eta baita marjina gordinean ere. Horniduretara egindako zuzkidurak oso altuak izan dira era berean, zuhurtziaz handieneko irizpideak aplikatuz eta jardura horien guztien ondorioz erakundeen multzoaren emaitza, zergen aurretik, 576 milioi eurokoa da, % 9,2ko murrizketa alegia, aurreko ekitaldiari dagokion emaitza baliokidearekin alderatuz gero. Hala ere, eta emaitza kaxkar horien guztien gainera, ekitaldian argi eta garbi eutsi zaio Gizarte Ekintzaren garapenaren aldeko apustuari, 213,5 milioi euro bideratuz sail horretako jardueretara, aurreko ekitaldian eskainitako zifra berbera esan genezake, eta horrek nabarmen jartzen du ahalegin horren garrantzia, bizi izan dugun giroaren moduko murrizketa eta uzkurdurako testuinguruan.

Horrez gain, saiatu gara transformazio edo eraldaketaren premiari buruzko eta produkzioko eredu berriranzko iragapenari buruzko gogoetarako gure ekarpen-aletxo egiten, Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako XXII. Ikastaroen barruan antolatutako mintegiari esker, eta mintegiaren izenburu berarekin —“Krisi globala: eredu ekonomiko eta sozial berri baterantz” alegia— argitaratu den Ekonomi Gerizan saileko ale berria izan da lan horren emaitza eta fruitua.

Etorkizunera modu baikorrean begiratzea gustatuko litzaidake, gure erakunde kideen jarduna gidatzen duten printzipioak balioetsi eta goraiatzeko, printzipio horietan esker eutsi eta sendotu ahal izan baitugu gure jarduketa-eremu geografikoen sustapen eta garapenean eta baita gure bezeroen eta hiritar guztien premiak eta beharrianak gogobetetzen ondo irabazia daukagun lidergoa eta gidaritzatza, Gizarte Ekintzaren ekimen eta jardueren bitartez.

Sistema finantzarioaren etorkizunean ikusabartzen diren erronkak izugarriak dira, baita gure kasuan begi aurrean daukagunak ere. Erronka horiek guztiak epe luzerako ikuspegiarekin hartu behar dira, epe laburrak berekin dakartzan murriztapenak eta urgentziak gaituz, gure erakundeen lehiakortasunaren aldeko apustua mantentzeko borondate sendoari eutsiz betiere, datozen urteetan ere sistemak bere horretan jarraituko duela bermatzeko modurik egokiena bezala.

Mario Fernández
Presidentea

Federazioaren kideak

1



Bilbao Bizkaia Kutxa

1990eko otsailaren 16an eratua,
Bilboko Aurrezki Kutxa Munizipalak
eta Bizkaiko Aurrezki Kutxak bat
egitearen ondorioz



Gipuzkoa Donostia Kutxa

1990eko abenduaren 1ean eratua,
Donostiako Aurrezki Kutxa
Munizipalak eta Gipuzkoako Aurrezki
Kutxak bat egitearen ondorioz



Caja Vital Kutxa

1990eko ekainaren 18an eratua, Gasteiz
Hiriko Aurrezki Kutxak eta Arabako
Aurrezki Kutxa Probintzialak bat egitearen
ondorioz



Caja de Ahorros
y Monte de Piedad de Navarra

2000ko urtarrilaren 17an bat-egitez eratua,
Nafarroako Aurrezki Kutxak Iruñako Aurrezki
Kutxa eta Bahitetxea xurgatu zuenean

Gobernu Organoak
2

Kontseilu Orokorra

Mario Fernández Pelaz jn.
Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen
Federazioko Presidentea*
Bilbao Bizkaia Kutzako Presidentea**

Gregorio Rojo García jn.
Caja Vital Kutzako Presidentea

Xabier Iturbe Otaegui jn.
Gipuzkoa Donostia Kutzako Presidentea

Miguel Sanz Sesma jn.
Nafarroako Aurrezki Kutzako Presidentea

Ignacio Sánchez Asiaín Sanz jn.
Bilbao Bizkaia Kutzako Zuzendari Orokorra

Guillermo Ibáñez Calle jn.
Bilbao Bizkaia Kutzako Zuzendari Orokorra

Juan M^a Sáenz de Buruaga Renobales jn.
Bilbao Bizkaia Kutzako Zuzendari Orokorra

Fernando Martínez Jorcano jn.
Gipuzkoa Donostia Kutzako Zuzendari Orokorra

Carlos Tamayo Salaberria jn.
Gipuzkoa Donostia Kutzako Zuzendari Orokorra

Joseba Barrena Llorente jn.
Caja Vital Kutzako Zuzendari Orokorra

Enrique Goñi Beltrán de Garizurieta jn.
Nafarroako Aurrezki Kutzako Zuzendari Orokorra

Pedro Martínez de Alegría Pinedo jn.
Idazkari Orokor Teknikoa

*Gregorio Rojo jn. ordeztu zuen 2009-12-14ko datarekin
** Xabier De Irala jn. ordeztu zuen 2009-07-27ko datarekin

Espainiako Aurrezki Kutxen
Konferentzian duen
ordezkaritza

Administrazio Kontseilua

Mario Fernández Pelaz jn.

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioko
Kontseilu Orokorrak ondorengo egunetan
egin zituen 2009. urteko bere bilerak:
2009-03-09an, 2009-07-13an eta 2009-12-14an.

Federazioaren jarduerak

3

2009. urte osoan zehar, Federazioak lan instituzional garrantzitsua burutu du, eta maila horretan aipatzeko modukoa da urteko jardueren memoria aurkezteko asmoz Lehendakariari egindako bisita ofiziala, eta baita interes orokorreko irizpenak, proiektuak eta txostenak lantzeko hainbat batzorde eta erakunde aholku-emailetan izandako parte-hartzea ere.

Era berean, laguntza finantzarioko ekintza ugari gauzatu dira Gobernu autonomotik planteatutako ekimen desberdinen alde, eta horien adierazgarri gisa aipa daiteke Aurrezki Kutxa kideek beren inguruko eremuaren garapen ekonomiko eta sozialean duten inplikazioa ezin hobeto erakusten duten 598 milioi euroko partaidetza.

Konsumitzaileen konfiantzari egindako jarraipenak ere etengabeko arreta izan du Kutxen aldetik, eta kezka horren erakusgarri moduan argitaratzen dira aldian behin EAEko Konsumitzailearen Konfiantza Indizea, eta baita karbonoaren merkatuaren eboluzioaren berri ematen duen Karbono Merkatuaren Buletina ere. Hedapen eta zabalkunde-lanak osatzeko ezin utzi aipatu gabe “Krisi globala: eredu ekonomiko eta sozial berri baterantz” izeneko gaiaren inguruan antolatutako gogoeta-prozesua, gerora Ekonomia gerizan saileko XXII. alea eman duena.

Jarduera instituzionalak



Lehendakariari egindako bisita

2009ko azaroaren 27an bisita egin zitzaion Patxi López Lehendakariari, Aurrezki Kutxa kideen jarduera finantzario eta sozialaren magnitude nagusiak aurkezteko.

Euskal Kontseilu Ekonomiko eta Soziala

Organo aholku-emaile horretan, Idazkaritza Orokor Teknikoa aritzen da beren egoitza EAEn duten Aurrezki Kutxen eta erakunde finantzarioen ordezkari gisa. Horrela, proiektu arau-emaileen irizpenak eta interesgarritzat jotzen diren ekimen propioko kostoenak lantzeko osatutako organo eta erakunde desberdinetan hartzen du parte.

Baden-Württemberg-eko Aurrezki Kutxen bisita

Baden-Württemberg-eko Aurrezki Kutxen ordezkari batek bisita egin zien euskal Aurrezki Kutxei, maiatzaren 19 eta 20an, azken horiek euren Gizarte Ekintzetan aurrera eramandako ekimen desberdinak ezagutzeko asmoz.



Babesak

Eusko Entziklopedia

Eusko Ikaskuntzak bultzatutako proiektua da, Eusko Jaurlaritzaren eta euskal Aurrezki Kutxen laguntza ekonomikoa jasotzen duena. Interneten eskura dagoen Auñamendi-ren datu-base digitalizatutik abiatuz, beste datu-base propioak (argitaletxearen ondarea bera, Euskonews aldizkaria, multimedia galeria, etab.) eta beste erakunde batzuetakoak ere (Aranzadi, Eresbil,...) integratzea da egitasmo honen helburua, euskal kulturari buruzko funts digitalizatuen edukiak aberastearren.

2009. urtean zehar amaitu dira digitalizazio-lanak, eduki elebidunak gehituz, funts eleanitzak aberasteko asmoz betiere. Bere bertsio berrian lehendik jadanik eskura zeuden 150.000 sarrera eta 165 milioi karaktereei 11,5 milioi karaktere berri baino gehiago erantsi zaizkie.

Proiektu plural eta integratzaile honek ezagutza-eremu anitz hartzen ditu bere baitan, eta erabat irekia dago hezkuntza eta zientzia-mailako komunitate osoarentzat, erabiltzaile propioez gain noski.

Euskal Herriko Orkestra Gaztea

Euskal Aurrezki Kutxek bere sorreratik bertatik (1996. urtetik, alegia) lagundu eta babesten dute euskal musikari gazteen prestakuntza eta trebakuntza orkestrala lantzeko bideratua dagoen Gazte Orkestra (EGO).

Epealdi horretan egitura sendoa sortzea lortu da, hainbat musika-tresna jotzen dituzten gazteen garapen artistikoa eta gizatiarra sustatu eta mundu profesionalerako sarreran zubi gisa jokatu ahal izateko. Orkestra sortu zenetik 600dik gora izan dira bertan parte hartu duten musikariak.

2009an musika-jotzaile berriak sartu dira orkestran, udaberrian egiten diren entzunaldi-saioen bitartez, ohizkoa denez eta aurten 200 hautagai baino gehiago aurkeztu ziren saioetara.

Uda parteko topaketaren berrikuntza nagusietako bat Eskoziako Aberdeen International Youth Festival jaialdian parte hartzea izan zen. 30.000 pertsona baino gehiagok esku hartzen duten jaialdi/lehiaketa horren helburua arte-munduko izar gazteak bultzatzea da, hasiberriak diren promesak nazioarte mailan ezagutzera emateaz gain.

Neguko kontzentrazio-garaian zinemako musika-errepertorioa landu zen, J. Williams eta Howard Shore autoreen obrekin, eta hainbat kontzertu eman ziren Gasteizko Principal antzokian, Bilboko Euskalduna jauregian eta Donostiako Kursaal.

Ekopass elkartea

Euskal Aurrezki Kutxek, hirugarren urtez jarraian neurtu dituzte garraioaren, elektrizitate-konsumoaren eta beste erregai batzuen kontsumoaren inguruan eguneroko jarduerak sortzen dituzten CO₂ isurpenak, aldaketa klimatikoaren kontrako borrokarako Ekopass elkartearekin sinatutako akordioaren barruan. Konpromiso hori Aurrezki Kutxek beren fundaziotik hasita aurrera daramaten Enpresako Gizarte Erantzukizunaren barruan sartzen da, hain zuzen ere.

Perspektiba enpresarialak - Eusko Ganberak

Euskal Aurrezki Kutxek lankidetzaren estuan dihardute Eusko Ganberak, Euskal Herriko Merkataritza Ganberekin Europar Batasun duela 10 urte baino gehiago eskualde mailan urtero egiten den inkestan. Ikerketa-lagin honetan 26 herrialdeetako 95 eskualderi dagozkien 69.000 enpresa baino gehiagok hartzen dute parte eta 1.000 enpresatik gora ari dira Euskadiren ordezkartzen.

Lan honi esker euskal enpresek ezin hobeto jakin dezakete zein egoeratan dauden kokatuak hainbat negozio-aldagairi dagokionez Europar Batasunaren barruan.

Aurrekoaz gain, bizi dugun ekonomia gero eta globalizatuagoaren baitan, lehiakortasunari dagokionez posizio egokian daudelako erreferentzia-puntu egokia diren Europako zenbait eskualderen eta Euskadiren arteko konparaziozko azterketa ere ematen du txostenak.



Lankidetzaren finantzarioko akordioak

Mundu-mailako krisi finantzarioak gogor eragin die 2009. urtean zehar merkatu finantzarioei, eta horrek likidezia-murrizketak ekarri ditu jarduera ekonomikoarentzat, oro har.

Kredituen murrizketa hori, nazioarteko maila osoan gertatu da, eta bere isla izan du euskal ekonomian eta baita euskal enpresetan ere. Horrexegatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ohiz kanpoko lerro bereziak jarri zituen martxan, zegoen zirkulatuzailearen eskasia, neurri batean bederen, arintzeko.

2009ko ekitaldian zehar indarrean egon diren Lankidetzako Akordioak barne hartu dituzte, beraz, betidanikoez edo tradizionalaz gain, baita arestian aipatutako laguntzako programa koiuntural horiek ere, euskal ekonomiaren sektorerik ahulenei zuzenduak.

Era berean, Foru Diputazioen diru-bilketaren gainbehera izan da atzeraldi ekonomikoarekin zuzenean lotutako alderdietako bat. Diru-bilketari hori euskal Administrazioaren funtsak lortzeko iturri nagusia izanik, gertaera horrek zorpetze-maila handiagoa eskatu du eta baita aparteko neurriak hartzea ere, sarreren murrizketa nolabait gainditzeko.

Eusko Jaurlaritzak erakunde finantzarioekin sinatutako akordioetan partaidetzako kuota globalik handienak euskal Aurrezki Kutxen eskuetan jarraitzen dute oraindik ere. Partaidetza-maila beretsua daukate kutxek baita 2009an zehar sortu diren hainbat eratako lankidetzak-eskaeretan ere.

Hiru euskal Aurrezki Kutxek 2009. urtean zehar Lankidetzak finantzarioko Akordioen finantzaketara bideratutako baliabideen zenbatekoa 634,2 M €-koa izan da gutxi gorabehera, izanik erakunde finantzarioen multzoak guztira bideratutako baliabideak 1.295 M €-koak, eta partaidetzaren maila, beraz, % 49 ingurukoa.


Etxebizitza

2009ko ekitaldian erakunde finantzarioen multzoak emandako finantzaketaren bolumena 571,4 M €-koa izan da azkenean, izanik euskal Aurrezki Kutxak baliabiderik gehien bideratu dituztenak, % 67,2ko kuotarekin hain zuzen ere.

Interes-tasek murrizketa nabarmena izan dute 2009ko ekitaldian zehar, eta horrek bere isla izan du Etxebizitza Hitzarmenean. Hasierako interes-tasek, bai Euskal Herrikoek eta baita Estatukoek ere, behera egin dute, baina azken horiek zertxobait behetik egoten jarraitzen dute, tasak finkatzeko irreferentzia aldatu egin delako (IRPHtik Euriborrera).



HASIERAKO INTERES-TASAK 2001-2009ko ETXEBIZITZA-HITZARMENEAN.



2009an zehar emandako eragiketak finantzatzeko hitzarmena, behin eta berriz jarraian luzatuz etorri den 2005ekoa izan da, eta indarreko laguntza finantzarioak aurreko ekitaldiko berak izan dira, alegia funts galdurako diru-laguntzak etxebizitza sozialen sustapenari dagokion kasuetan, zaharbertitzea, beste batzuen artean, eta interes-tasaren inguruko laguntzak errentamendua bultzatzeko asmoz.

Kreditu-erakundeen eta Euskal Administrazioaren arteko lankidetzak finantzarioari buruzko abenduaren 22ko 628/2009 Dekretuarekin eguneratu zen araudia. Izan ere, egiazki 2010ean sartu baldin bada ere indarrean, dekretu hori berrikuntza-sail garrantzitsu baten aurreko pausoa besterik ez baita —figura berriak agertzen dira, hala nola etxebizitza tasatuak eta zuzkidurako alojamenduak, ez-ordainduak gertatuz gero etxebizitzak berrerosteko aukera, interes-tasaren sistemaren aldaketa, ...

Inbertsio Produktiboko Hitzarmenak: AFI

Enpresen Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Plana 2006-2009 epealdirako zegoen aurreikusia, hasiera batean; baina egoera ekonomikoaren konplexutasuna ikusiz, Inbertsio Publikoa Dinamizatzeko Erakundearen arteko Akordioak indartu eta sendotu zuen, 2008tik 2010era bitarteko indarraldiarekin sortua hain zuzen ere, euskal enpresen lehiakortasuna bultzatzen saiatzeko, inbertsioa eta enpresen jarduera sendotu eta indartzeko politiken bitartez.

2009ko ekitaldian indarrean jarraitu dute ohizko tresna finantzarioak edo Inbertsio Produktiboko Hitzarmenak, bestela esanda AFLak —Industriakoa, Merkataritza eta Turismokoa— eta horiei 2009rako argitaratutako Aurrekontuen 18/2008 Legean aurreikusitako lerroak gehitu zaizkie, Ogasun eta herri Administrazio Sailak sustatuak edo baita egokitzapen finantzarioko lerroak ere. SPRI elkarteak jarraitu zuen lerro horiek kudeatzen.

Aipatutako hiru sektore horietako edozeinetan diharduten ETEak izan ohi dira AFI lerroen onuradunak, betiere kasu bakoitzari dagokion arauan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte, esate baterako gutxienezko inbertsioa 100.000 €-koa izatea, sektore industrialaren kasuan edo 30.000 €-koa, gainerako bi sektoreetako edozeinetan.

2009an aplikatutako baldintza finantzarioak izan ziren Euribor gehi % 1,25-% 1,75 bitarteko marjina, aukeratutako epearen arabera, 7 urtetik gorakoa izatera irits daitekeena, aplikatu daitezkeen gehienezko komisioa % 0,40koa izanik.

Aurreko ekitaldiko laguntzei eutsi zaie, eta orokorrean hitz eginda, subentzio edo laguntzaren interes-tasa 1,5 puntukoa izan zen, gehi 0,25 puntu osagarri gehiago, baldin eta eragiketak EBB (elkarrekiko berme-baltzu) baten bermea bazuen.

Hiru euskal Aurrezki Kutxek AFLen bitartez bideratutako baliabideak 33,7 M €-koak izan ziren guztira.

Egitura finantzarioa egokitzeko lerroak

- **ETEen eta Autonomoen egokitzapen finantzarioa:** 2009rako Euskadiko Aurrekontuen 19/2008 Legeak, abenduaren 30ekoak, bere bederatzigarren xedapen gehigarrian, euskal enpresentzat finantzabideak bilatzeko laguntza-programa espezifikoa bat martxan jartzeko baimena eman zion Eusko Jaurlaritzari, ondorengo jarduketako lerroen bidez:

- Bermeen funts berezia, 100,- M €-ko gehienezko zuzkidurarekin.

- Urte anitzeko finantzaketa-lerroa enpresario indibidual, autonomo eta ETEentzat, 500,- M €-ko gehienezko zuzkidurarekin, horiek eduki ditzaketen zirkulatuile-premiak asetzeko, epe laburreko zorra epe ertain eta luzeko zor bihurtzeko, etab.

Egitura finantzarioa egokitzeko proiektuak finantzatzeko modukotzat jotzen dira aurkeztutako finantzaketaren egitura etorkizunean garatu eta mugitu ahal izateko desegokia denean. Formalizatutako maileguen eta kredituen eragiketak EBB baten bermea zeramaten.

Eskatzaileari aplikatzen zitzaizkion baldintza finantzarioak Euribor gehi % 0,60ko marjina ziren.

Finantza-erakundeek multzoak lerro horietara bideratutako baliabideen bolumena 476,9 milioi eurokoa izan da, eta hiru euskal Aurrezki Kutxek emandako finantzaketa, berriz, 171,2 milioi eurokoa (guztizkoaren % 35,9).

-Sektore estrategikoen egokitzapen finantzarioa: Euskal Administrazioak, otsailaren 25eko 7/2008 Ebazpenaren bidez, sektore estrategikoetako enpresei laguntza finantzarioko programa espezifiko bat martxan jartzea erabaki zuen, enpresa horiek euren jardueratik edo enplegu-bolumenagatik, 230/2008 Dekretua erabiltzeko modurik ez zutenean. Eta finantzaketa-lerro horiek ere EBB baten bermea zuten.

Programak ondorengo puntu hauei ematen zien lehentasuna: kaudimen handiko egitasmo bideragarrien finantzaketa, enpresaren edo bere hornitzaile-katearen zeharkako jarduerari eustea, balio erantsi handiagoa sortzea eta, batez ere, enplegua sortu eta/edo enpleguari eustea.

Enpresei aplikatzen zitzaizkien baldintza finantzarioak hauek ziren: Euribor gehi % 1,50eko marjina.

Finantza-erakundeek multzoak 2009. urtean zehar bideratutako baliabideen bolumena 59,6 M €-koa izan zen, eta horietatik 8,75 M € hiru euskal Aurrezki Kutxek eman zituzten.

LANKIDETZA FINANTZARIOKO HITZARMENAK

LANKIDETZA FINANTZARIOKO AKORDIOAK	MARKO LEGALA	FINANTZAKETA GLOBALA		KUTXEN PARTAIDETZA			KREDITUEN EZAUGARRIAK	
		HITZARMENAREN BOLUMENA	ESKATUTAKO FINANTZAKETA	EMANDAKO ZENBATEKOA	GUZTIZKOAREN GAIN	EPEA (urteak)	INTERES-TASAK (%)	GEHIENEZKO ZENBATEKOA
ETXEBIZITZA	- 10/2005 Dekretua, urtarrilaren 18koa - 290/2003 Dekretua, azaroaren 25ekoa - 315/2002 Dekretua aldatzen duena - 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa - Errehabilitazioa- - 315/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa - Neurri finantzarioak- - Garapeneko Aginduak - Hitzarmenaren sinadura: 2005-01-03an eta luzapena 2006-12-29an - 628/2009 Dekretua, abenduaren 22koa	Ez dago	571,4	383,2	67,2	20-30 urte	HMEIren % 85 (maileguaren 1. urtean) HMEIren % 89 (gainerako urteetan)	salmentza-prezioaren % 80
INDUSTRIA	- Hitzarmenaren sinadura: 2000ko uztailaren 19an - Laguntzen iragarpena SPRI 2009-02-16	120,20	84,8	18	21,2	7 edo gehiago	- ICO: akordioaren gain - Aldakorra: Euribor + % 1,25-1,5-1,75	Diruz lagutzeko moduko mailegutzat jotzen da ondorengoetako bixkiena: - diruz lagutzeko moduko inbertsioaren % 100 edo -erakunde finantzarioak baimendutako zenbatekoa
TURISMOA	- Hitzarmenaren sinadura: 2000ko uztailaren 19an - Laguntzen iragarpena SPRI 2009-02-16		8,4	4,4	52,1	7 edo gehiago		
MERKATARITZA	- Hitzarmenaren sinadura: 2000ko uztailaren 19an - Laguntzen iragarpena SPRI 2009-02-16		23,4	11,3	48,5	7 edo gehiago		
ADEFIN	- 2009ko martxoaren 12ko Ebazpena - 2009ko otsailaren 23ko Agindua	Ez dago	4,2	0,8	19	5 gutxienez	- Finkoa: 6,5/75% - Aldakorra: Euribor + % 1,25	Diruz lagutzeko maileguaren gutxienezko zenbatekoa: 30.000 euro
PYMES	- 230/2008 Dekretua, abenduaren 30ekoa	500	476,9	171,2	35,9	3 urte arte	- E + % 0,60	Max.: 600.000 Min.: 50.000
AUTONOMOAK	- 229/2008 Dekretua, abenduaren 30ekoa							Max.: 200.000 Min.: 10.000
SEKTORE ESTRATEGIKOAK	- 7/2009 Ebazpena, otsailaren 25ekoa	-	59,6	8,75	14,7	3 urte arte	- E + 1,50%	Max.: 1,5 M. € Min.: 600.000 €
ZUBI KREDITUAK	- 229 eta 230/2008 Dekretuak-Hitzarmena Eakundeekin-	20	8,2	4,5	55	6 hilabete	- E + 1,60%	Egokitzapen finantzarioko maileguaren zenbatekoa
LUZARO		-	58,5	32,1	54,9	-	-	-

E: Eragiketaren eta/edo berrikuspenaren dataren aurreko azkeneko lanegunean lortutako interes-tasa, Reuter-en Euribor pantailatik, 1, 3, 6 edo 12 hilabeteko epean
HMEI: Etxebizitza eskuratzeko hipoteka-maileguen batez besteko interesa, 3 urteko gorrako maileguetan.

Beste lankidetzak-akordio batzuk

Inbertsioak egiteko laguntza finantzarioen Programak Garatzeko Hitzarmena

Beste erakunde batzuen artean BBKren, Kutxaren eta Caja Vital Kutxaren lankidetzak duen Hitzarmen honek, AFlen izapidetze elektronikoaren hobekuntza ekarri zuen eta indarrean jarraitu du 2009ko ekitaldian ere.

Gazte Txartela programa

2007ko otsailaren 21eko aginduak Gazte Txartela banatzen duten erakundeek atxikipen-erregimena ezartzen du 2007-2010 epealdirako, eta bost erakunde finantzarioen lankidetzak dauka, hiru euskal Aurrezki Kutxena horien artean. Xede populazioa zabaldu egin zen 2009an zehar, 14 urtetik 29ra bitarteko gazteentzat jarriz gaur egun erabilera, orain arte muga 25 urtetan jarria baitzegoen.

Erakunde banatzaileek onartutako konpromisoen artean ondorengoak aipa daitezke: behar adina informazio ematea, gazteek eman beharreko tasa publikoaren erakunde gordailuzain moduan jotzea, txartelen euskarriak egitea eta Gazte Txartelak banatzea, beste hainbat eginkizunen artean, txartelen titularrei istripu-aseguru bat eskaintzeaz gainera.



Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua, Etxebide

Etxebide da Sustapen Publikoko Etxebizitzak esleitzeko Euskal Zerbitzua, eta horrez gain, baita Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoaren barruan osatutako sarea eratzen duten erakundeetako bat, Bizilagun-ekin — etxebizitzara jarritako sozietate publikoekin—, Udaletako etxebizitza-zerbitzuekin eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarekin berarekin batera.

Etxebidek hainbat aldaketa izan ditu bere funtzionamenduan 1997. urtean martxan jarri zenetik, eta horrela 2001ean eskaerak aurkezteko zerbitzu ireki iraunkorra bihurtu zen. Hain zuzen ere, 2009ko urte-amaieran 92.000 eskaeratik gora aurkeztu ziren (% 15,2 Araban; % 50,2 Bizkaian eta % 34,6 Gipuzkoan). Euskal Aurrezki Kutxak Etxebide-ren hasierako unetik beretik izan dira lankide bertan, interesatuei aholkularitza eskainiz eta eskaeren izapidetze-prozesuan laguntza emanez.

Konekta Zaituz Gunea

Eusko Jaurlaritzak 2001ean jarri zuen martxan zerbitzu hau eten digitala gutxitzeko asmoarekin, edonork doan erabiltzeko moduan prestatuak dauden bere bulego-sare zabalean euskal hiritarrei trebakuntza eskainiz.

Zerbitzua Euskadi Informazioaren Gizartean izeneko Egitasmoaren barruan sartzen da, eta bere hasierako helburuak bete ahala eboluzionatuz joan da pixkanaka. Zerbitzua osatzen duten zentro publikoen sarea Eusko Jaurlaritzako Informazio eta Telekomunikazioetako Zuzendaritzara atxikia dago, eta Eudelen laguntza izan du hasieratik bertatik.

2009. urtearen amaieran KZ Gunea sareak 315.000 erabiltzaile erregistratu baino gehiago zeuzkan, eta horietatik, 120.000tik gora aurreneko aldiz trebatu dira Internet-en erabileran. Guztira trebatutako herritarrek 250.000 dira gaur egun.

Euskal Aurrezki Kutxek zerbitzua abian jarri zenetik aritu dira euren lankidetzak eskaintzen, banku elektronikoari buruzko ikastaroak emanez. 3.014 ikastaro eman dira, eta 20.232 izan dira bertara etorritakoak.

Kultura Bonuen programa

Euskal Administrazioak kultura-sektoreari laguntza ematea erabaki zuen 2009ko ekitaldian, produktu kulturalen erosketak subentzionatuz hainbat euskarritan, "Kultura Bonuak" izeneko salmenta bidez. Eta horretarako 76.666 bonu jarri ziren guztira jendearen eskura EAEn, hiru euskal Aurrezki Kutxen bitartez; horrela, BBK-k, Kutxak eta Caja Vital Kutxak zerbitzu anitzeko beren kutxazainen sareak, eta/edo beste bitarteko espezifiko batzuk erabili zituzten.

Bonu bakoitzaren kostua 40 €-koa zen, horietatik 25 € erosleak ordaintzen zituen, eta gainerakoa euskal Administrazioaren diru-laguntzari zegokion.

Hiru Lurraldeetan artean 55.625 bonu saldu dira guztira, jendearen eskura jarritakoen % 73 gutxi gorabehera, abenduaren erdialdera hasi eta hiru bat asteko iraupena izan duen kanpaina batean.

Euskara sustatzeko Hitzarmena

2009. urtean ere indarrean jarraitu du euskararen sustapenerako sinatutako Hitzarmenak, Eusko Jaurlaritzaren Lan-Hitz programaren barruan sartzen denak.

Kalitateko kudeaketaren eta zerbitzuaren hobekuntzaren esparruan, euskal Aurrezki Kutxek bezeroei arreta emateko euren zerbitzuan euskara hobekuntzako osagai moduan balioesteko eta beraz bere produktuak eta zerbitzuak ele bitan eskaintzeko konpromisoa hartzen dute, erabiltzaile bakoitzak Kutxarekiko dituen harremanetan bi hizkuntzetako bat aukeratzeko modua izan dezan.

Ikerketak eta argitalpenak

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak hiru azterketa eta ikerketa lerro dauzka abian gaur egun, aldizka landu eta argitaratzen dituenak: Kontsumitzailearen Koiuntura Ekonomikoa izeneko txostena, Ekonomi Gerizan monografikoak eta Karbonoaren Merkatuaren Buletina. elaborar y difundir información de Izaera eta eduki sozial nahiz ekonomikoko informazioa landu eta zabaltzea da lerro horien azken helburua, gizarteari balioa eta ezagutza eskaintzeko asmotan betiere.

Kontsumitzailearen Koiuntura Ekonomikoa izeneko txostena hiru hilean behin lantzen da, eta EAEn bizi diren 18 urtetik gorako kontsumitzaileen artean egindako 1.600 inkestetan oinarritzen da. Inkestaren edukia euskal kontsumitzaileek hainbat aldagai ekonomiko, finantzario eta sozialei buruz dituzten pertzepzioa, interesak eta igurikimenak zuzenean ezagutzen saiatzen da. Lortutako datuen analisiak EAeko Kontsumitzailearen Konfiantza indizea osatzeko modua ematen du, euskal kontsumitzaileek ekonomia orokorraren eta etxeetako ekonomiaren alderdi ugari buruz duten pertzepzioa ezagutzera emateaz gainera. Indize horren oinarriko datuak erakunde europarrek estatu mailan nahiz Europa mailan landutako antzeko beste indize batzuetako datuekin guztiz homologatzeko modukoak direnez, aipatu lurralde-eremu horietako kontsumitzaileen konfiantzaren eboluzioaren kontraste fidagarria egin daiteke.



Ekonomi Gerizan sailak ikerketa monografikoak biltzen ditu, urtean behin argitaratzen direnak. Lan horietan eduki ekonomiko edo sozialeko gaiak sakonean jorratzen dira. Landu beharreko gaien aukera euskal gizartearentzat eta euskal ekonomiarentzat, oro har, epe ertain eta luzerako eduki dezakeen garrantzia baloratuz eta kontuan hartuz egiten da. Aukeratutako gaien ezagutzak eta, beraz, baita horien zabalkuntzak ere, gure ustez gizarte osoarentzat duen interesa dela medio, monografiko horietako bakoitzaren oinarrian Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian egiten dituen Udako Ikastaroen barruan gai berarekin antolatu ohi den mintegia egoten da.

Aldaketa klimatikoak eta garapen jasagarriak, ez bakarrik EAEko biztanleentzat, baita gure planetako biztanle guztientzat ere, dituzten inplikazio sozial eta ekonomiko sor baina aldi berean sakonak daude Karbonoaren Merkatuaren Buletinaren azpi-azpiko oinarrietan. Bi hilabete behin argitaratzen den buletinaren bidez gaurkotasan handiko informazioa kaleratzen dugu, aipatutako gai horiei buruz, berotegi efektua duten gasen isurpen-eskubideen merkaturan arreta berezia jarritz betiere.

Eta gure argitalpenetan eskainitako informazioak ahalik eta hedapenik handiena izan dezan, eta ahalik eta baliagarriena gerta dadin, lan horiek guztiak eskura daude, erabat doan gainera, gure web-orrian (www.fcavn.es).

Ikerketa Monografikoa eta Udako Unibertsitateko Mintegia

Munduan izandako hazkunde ekonomikoko azkeneko zikloa (1993 - 2007), denboran zehar luzatua eta ezin joriagoa eta ugariagoa bere neurri-handitasunean, globalizazioaren azken uhinaren fruitutzat har daiteke. Ziklo horren jatorria Bigarren Mundu Gerraren amaieran koka genezake (Breton Woods-eko Hitzarmena) eta informazioaren eta komunikazioen teknologiek iragan mendeko azkeneko bi hamarkadetan izan zuten garapena hartu ohi da aldaketa horren katalizadore eta azken bultzatzaile gisa.



Alor ekonomikoak bizi izan dituen eraldaketak oso garrantzitsuak izan dira: mundu-mailako merkataritzaren gorakada nabarmena, Txina, India eta Brasileko ekonomiek munduan hartu duten lehen mailako protagonismoa, edo ondasunen nahiz zerbitzuen produkzioan izandako deslokalizazioa, eraldaketa horietako batzuk, baina ez guztiak, ezta gutxiago ere, aipatzearren.

Finantzen eremura etorritz, maila honetan ere eraldaketa garrantzitsuak gertatu dira, esaterako finantza-merkatu lokalen artean denbora errealean eraikitako elkarlotura, kapitalen fluxu libre planetan osoan zehar eta ingeniari-tza finantzarioa deitu izan denaren tresna ugariaren garapena eta erabilera (opzioak, etorkizunekoak, eratorriak, titulizazioak, egituratuak, hedge fund delakoak, etab.).

Era berean ezinbestekoa da aipatzea, joan zen mendearren bigarren erdialdean sortu eta garatu zirela nazioaz gairako izaera zuten instituzio eta erakunde anitz (Nazio Batuen Erakundea, Munduko Bankua, Nazioarteko Moneta Funtsa, Europar Batasuna, Merkataritzaren Munduko Erakundea, etab.), egoerak gaur egun hartu duen neurriaren eta norabidearen islatzat —esanbidezko islatzat ez bada ere, bai bederen begi-bistako islatzat— har ditzakegun erakundeak, hain zuzen ere.

Eraldaketa horien guztien multzoak ezinbestean eragina izan du gizabanakoetan, gizartean, kulturen, eta baita Estatuaren erakunde eta antolamenduetan ere (eta eragin hori, jakina, ez da neutrala izan), informazioaren eta komunikazioen teknologiek eskuratu duten eragin gero eta handiago eta orokorragoak bultzatu eta eraldatu baitu hasierako eragin soil hura.

2007ko azken lauhilekoan hasi zen egoeraren errotiko aldaketa, izanik Ameriketako Estatu Batuetako subprime hipoteken krisia deitu izan dena aldaketa horren abiapuntua. Egoera-aldaketa honek agerian jarri zituen sistemak bere osotasunean zituen ahuldade, inefikazia, inefizientzia eta inkoherentzia guztiak. Oso hilabete gutxiko epean eraginak ikaragarriak izan ziren ez bakarrik nazioarteko sistema finantzarioan, merkatu finantzarioak eta ekonomia errealek ere, azkenik, erasan baitzuten.

Erakundeen eta estatuen ikuspegi-eremutik nabarmen jarriz joan ziren eraginei erantzuna ematen saiatu dira, baina gertakizunen eboluzioak krisi koiuntural hutsaren eremua eta mugak gaintuzten dituzten koordinatuen aurrean aurkitzen garela pentsatzera garamatza. Ondorioz, zalantza eta duda-muda handiak zabaldu dira, ez bakarrik sistema finantzario globalari dagokionez, baizik eta baita indarrean dagoen eredu ekonomikoari eta gobernantza-sistema globalari dagokienez ere. Era berean, kezka handia dago gizarteetan gerta daitezkeen eraginaren inguruan ere, politikaren alorrean bezala baita kulturaren alorrean ere.

Irailaren 9an eta 11n, Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen barruan, “Krisi globala: eredu ekonomiko eta sozial berrirantz” izeneko mintegia egin zen Donostiako Miramar jauregian, Federazioak antolatutik. Eta bertan mundu akademiko eta finantzarioko pertsona nabarmenak hartu zuten parte; klausurako ekitaldian, esate baterako, Espainiako Bankuaren Gobernadorea den Miguel Angel Fernández Ordóñez jaunak eta CNMVko Presidentea den Julio Segura jaunak esku hartu zuten.

Ekonomi Gerizan serieko hamazazpigarren argitalpenak Mintegiko parte-hartzaile desberdinen ikuspegiak erakusten ditu, batzuk eta besteak, kontraste moduan, elkarren ondoan jarriz, perspektiba desberdinetatik abiatuz egungo krisi globalaren jatorriaz, eboluzioaz eta konponbidez gogoeta egiten duten bestelako lankideen iritziak emateaz gain.

Kontsumitzailearen Koiuntura Ekonomikoaren txostena (KKE)

Agregatu makroekonomiko handien eboluzioa iragartzeko baliagarriak izango diren informazio eta adierazle aski fidagarriak aldizka eta modu sistematikoan lortzeko azaldu eta justifikatzen du, neurri handi batean, gizabanakoek nahiz enpresek beren ekonomia indibidualen eta baita ekonomia orokorraren eboluzioari buruz dituzten pertzepzioak eta gai horien inguruan egin ditzaketen aurreikuspenak ebaluatzen dituzten azterketa eta analisi ugari egitea. Familiek aurrezki, kontsumo, inbertsio nahiz zorpetze-kontuetan hartu ohi dituzten erabakiek sistema ekonomiko orokorraren eboluziorako duten ukaezinezko garrantziak mugatzen du, bai ikuspegi akademikotik eta baita enpresen nahiz erakundeen eremuetatik ere, erabaki horien zentzua eta alkantzua aldez aurretik ezagutzea ahalbidetuko duten bitartekoak eskura edukitzeko dagoen interesa. Eta eragile haiek —familiek alegia— ekonomia orokorraren eta euren ekonomia indibidualen egoera eta igurikimenean inguruan duten pertzepzioan oinarritzen diren erabaki horiek kontsumitzaileen koiuntura ekonomikoko indizeek eta sentimendu-adierazleek bildu eta eskaintzen duten informazioaren bidez aurreikus daitezke.



Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa 1984. urtetik ari da lantzen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumitzailearen Konfiantza Indizea, erakunde europarrek Espainia eta Europa mailan antzeko indizeak lantzeko erabiltzen duten metodologia berarekin. EAEko Kontsumitzailearen Koiuntura Ekonomikoko Indizeak, arestian aipatutako indizean eta maila subjektibokoak nahiz estatistiko makroekonomikoak diren beste adierazle osagarri batzuetan oinarritzen denak, euskal kontsumitzaileen pertzepzioen berri izateko eta antzeko beste eremu sozioekonomiko batzuetako kontsumitzaileen pertzepzioekin erkatzeko modua eskaintzen du.

Txostena EAE n bizi diren 18 urtetik gorako pertsoneri hiru hilean behin egindako 1.600 inkestatan oinarritzen da. Era horretan lortzen diren emaitzen konfiantza-maila estatistikoa % 95,5ean kokatzen da, izanik errore-marjina +/-2,2koa. Inkesta egiten den txanda bakoitzean lortzen den informazioak balio du EAEko Kontsumitzailearen Konfiantza Indizea eta beste adierazle osagarri batzuk lortzeko; baina baita aurrezkia, gizarte-aurreikuspena, edota etxeetako zorpetzea bezalako gai espezifikoaren inguruko informazioa lortzeko ere.

Karbonoaren Merkatuaren Buletina

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxak ingurumenarekin zerikusia duten alderdi guztiekin lotuak egon dira betidanik eta, oso bereziki, gizarte-erantzukizun korporatiboa esaten zaionarekin, beren Gizarte Ekintzaren bidez. Testuinguru horretan, 2005ean Federazioaren bitartez jarri zen abian Karbonoaren Merkatuaren Buletina izeneko aldizkako argitalpena, aurrezki-kutxa kideek gai horrekin lotutako zerbitzuak martxan jartzearekin batera.

Azken hamarkada hauetan gero eta indar gehiago hartu du epe laburrera nahiz epe luzera hazkunde ekonomikoaren ereduak, ezinbestean, mundu mailan, ingurumenarekiko eta baliabide naturalekiko errespetuz jokatu behar duela dioen teoriak, guztiok horretaz jabetzeraino. Gaur egun indarrean dagoen ereduak, aldiz, energia erregai fosiletatik ateratzen saiatzen da, nagusiki, eta horretarako beharrezkoak diren prozesu multzoen emaitza gisa hainbat hondakin sortzen dira, eta horien artean CO₂ isurpenak. Isurpen horiek eragin anitz eta oso diferenteak dituzte, horietako asko kaltegarriak planeta osoaren atmosferarentzat eta, beraz, baita ingurumenarentzat ere.

Isurpen horien kudeaketa eta murrizketa funtsezko aldagai bilakatu da gaur egun gobernuen eta enpresen epe laburreko planifikazioan. Horretarako tresna desberdinak jarri dira martxan, eta nagusien artean CO₂ isurpenen erregulazioa aipa daiteke, merkataritzako transakzioen nahiz transakzio finantzarioen baitan uler daitekeen ondasun moduan.

Bi hilean behin Karbonoaren Merkatuaren Buletinak informazio interesgarria eskaintzen du isurpen-eskubideen merkatuari buruz, bai azken orduko jardueren inguruan eta baita horren eboluzioko igurikimenean inguruan ere. Aurrekoez gain, enpresek eta administrazio publikoek ingurumenaren babes aktiboarekin lotutako jarduerari buruzko informazioak ere jasotzen dira buletinean.



Lankidetza kontsortzialeko jarduerak

4

Kapitalen merkatua, asegurekin eta pentsioekin erlazionatutako jarduerak, zerbitzu informatikoak eskaintzea, ondasun eta higiezin tasazioa, etxebizitza-eremuari lotutako jarduera desberdinak, edo kredituaren finantzazioan espezializatutako elkarte nahiz erakundeak aipa daitezke, beste hainbat jardueraren artean, Federazioko Aurrezki Kutxen lankidetzak kontsortziala gauzatzen deneko adibideetako batzuk bezala.

Sarrera

Euskal Aurrezki Kutxek sozietate bateratuak dauzkate eratuak hainbat eremutan: esate baterako, bitartekaritzako jarduerak kapitalen merkatuan, aseguruaren eta aurreikuspenaren munduan, zerbitzu informatikoetan eta bestelako eremu espezializatu batzuetan.

Kapitalen merkatua

Norbolsa S.V.B.

Burtsak martxoan maila minimoetara erori ondoren, susperraldi bat gertatu zen sektore finantzarioaren estabilizazio edo egonkortzeari esker, eta horrek % 30eko gorakada eragin zuen IBEX indizean urte-amaieran eta % 21ekoa Eurostox indizean.

2009. urtean, Norbolsak 2,877 milioi euroko irabazia lortu du zergen aurretik eta 2,483 milioi euroko irabazi garbia. Guztira 13.026 milioi euroko bitartekaritza-bolumenarekin, hirugarren postuan dago kokatua Bilboko Burtsan. SIBEn kontratatzen den errenta aldakorrari dagokionez, berriz, Norbolsak 3.173 milioi euroko baliabide-bitartekaritza egin du 2009. urtean.

Era berean, nabarmentzeko modukoa da Eusko Jaurlaritzak 2009ko urrian egindako 700 milioi euroko bonu-jaulkipenean co-leader moduan izandako partaidetza, sozietate lider bezala mantenduz Euskal Zor Publikoaren merkatu sekundarioan partaidetza horri esker.

Sozietateak izandako eboluzioak Burtsako elkarleen sektorean duen lehiarako posizionamendu hobea eta sendotasun finantzarioa eman diote ekitaldian zehar, 2009. urtea ixtean duen 27 milioi euroko bere ondare garbiak eta indarrean daramatzan hogeitaz bi urteetako % 22ko BET horrek erakusten duten bezala.

2009an, Norbolsak bere plan estrategikoa garatzen jarraitu du, baloreak maileguan emateko Norbolsa Aholkularitza eta Erosketak sailaren zerbitzu berriak martxan jarri eta Norbolsa Broker webgune berria merkaturatuz, Sozietatea behin berriz Internet-eko burtsa-zerbitzuen lidergoan kokatua duen punta-puntako berrikuntza teknologikoa hain zuzen ere.



Aseguruak eta Pentsioak

Biharko Vida y Pensiones, Compañía de Seguros y Reaseguros S.A.

Primen bolumena 46,6 milioi eurokoa izan da, % 2ko gorakadarekin. Polizen kopurua 240.900 inguruan dago gaur egun. Bestetik, kudeatutako aurrezkiaren bolumena 615 milioi ingurukoa izan da.

Pentsio Funtsen eta BGAEen Kudeatzaile gisa duen jarduerari dagokionez, Biharko Vida y Pensiones-ek 15 Pentsio Funtssetakoak eta 7 BGAEtakoak diren 417 milioi euroko ondarea administratzen du, izanik partaideak 45.378 guztira.



Ekitaldiko emaitza, zergen aurretik, 7,6 milioi eurokoa izan da.

Biharko Aseguradora

Etxeko Arriskuanitza aseguria eta Ordainketak Babesteko aseguria dira urtean zehar portaera oso positiboa izan duen Biharko Aseguradora sailaren produktu nagusiak.

Kudeatutako polizen bolumena 256.197koa izan da, aurreko urtekoa baino % 4,7 handiagoa, eta negozio-bolumena 44,4 milioi eurotan kokatu du horrek, 2008. urtekoa baino % 7,5 goitik.

Zergen aurreko emaitza 6,3 milioi eurotaraino iritsi da, aurreko ekitaldietan izandako eboluzio positiboa egiaztatuz.

Zerbitzu informatikoak

Seriner

Informatikaren alorreko premiei erantzuna ematen saiatzen den sozietate honek hainbat jarduera eta proiektu garatu ditu 2009. urtean zehar.

Ordainbideen atalean, ohizko euskarri-jarduere eta aurrezki-kutxa erabiltzaileen negozio-alorrek egindako eskaerei erantzuteaz gain, hainbat eskakizuni eman die erantzuna zerbitzuak : esaterako, txartel berrien definizioa eta merkaturatzea, EMVrako migrazio masiboa, edota kibraketa-daten aldaketa, batzuk aipatzearen. Halaber, aplikazioaren hardwarearen eta softwarearen konfigurazioa eguneratzeko proiektu bat jarri da martxan. Ekimen horiek guztiek agerian jartzen dute aplikazioa negozio-mailako, edo eragiketa nahiz segurtasun-mailako eskakizun berrietara egokitzeko lortu den ahalmena.

The logo for Seriner, featuring the word "seriner" in a lowercase, serif font. The letter "i" is blue, while the other letters are black.

Autozerbitzuko aplikazio bateratu berriari dagokionez, Aurrezki Kutxa erabiltzaileen Kutxazainen sarean zabaldu da. Eta erabilera hori autozerbitzuko beste gailu eta tresna mota batera ere hedatu da: libreta-eguneratzaileetara eta eskudiruaren banatzaileetara hain zuzen ere. Gaitasun eta aukera berriak ere gehitu zaizkio aplikazioari, hala nola ukipenik gabeko txartelen erabilera eta itsuentzako irisgarritasuneko prestazioak.

Higiezinaren Kudeaketarako eta Obren modulurako garatutako aplikazio bateratua hainbat erakunde berezitan ezarri da ekitaldian zehar.

Aurrezki Kutxa bazkideekin lankidetzan arituz, hardware periferikoan gorabeheren tratamendurako erreferentziako eredia definituko duen ikerketa bat burutu da.

Konpentsazio Klubari buruzko konpromisoa beste epealdi baterako luzatu da, eta horren barruan sartzen dira zordunketa-eragiketeei buruzko SEPA araudiaren zerbitzu berriak.

Nominari eta Giza Baliabideei buruzko aplikazioen eguneratze teknologikoa egiteko proiektu edo egitasmo bateratuari ekin zaio.

Beste sozietate batzuk

Servatas



Tasazioko zerbitzuak egiten ditu sozietate honek euskal Aurrezki Kutxentzat.

Jarduera inmobiliarioa, berez, nahiko moteldua egon den ekitaldia izan arren, 2009ko urtean zehar 23.356 tasazio egin dira guztira, eta horrek 6.378 mila euroko fakturazioa suposatu du.

Egindako tasazio guztietatik, % 62% Euskal Herrian egin da, eta komunitate horren atzetik Madrilera Ekidegoa dator, bertan jardueraren % 11,8 egin baita. Kasuen % 93,4an, tasazio-lanen helburua hipoteka-bermea izan da.

Luzaro

Luzaro Establecimiento Financiero de Crédito izenekoa hiru euskal Aurrezki Kutxek eta bestelako erakunde finantzario batzuek, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan sustatutako sozietate anonimoa da, eta bere helburu soziala epe luzerako partaidetza-maileguak ematea da, euskal ETEen egitura finantzarioa sendotzen saiatzeko.



2009an 79,2 milioi euroko balioa duten eragiketak formalizatu dira, eta horietatik 58,5 milioi eurotako partaidetza-maileguei dagozkie. Mailegu horiek % 106ko gorakada esanguratsua izan dute aurreko urteko bolumenarekin alderatuz gero.

Sozietateak 997.000 €-ko emaitza garbiarekin itxi du ekitaldia, eta horri esker nabarmen gehitu da Sozietatearen kaudimena eta bermea, bere funts propioak 15.791 mila €-tan kokatu baitira, eta horiei zalantzakotzat jotzen diren maileguen arriskuaren % 132 estaltzen duen kaudimengabezien kontrako funtsa osatzen duten 1.487.000 € gehitu behar zaizkio.

Sozietate Etxebizitza Eragileak

Euskal Aurrezki Kutxek 2000. urtetik hasita hartzen dute parte, bazkide finantzario nagusi moduan, eta Visesa Sozietate Publikoarekin batera, Alokabide eta Orubide izeneko Sozietateetan, izanik elkarte horien helburua etxebizitza-politika garatzea alokairuaren eta lurzoruaren eremuan hurrenez hurren.

ALOKABIDE

Sozietate honen helburu behinena alokairua bultzatu eta sustatzea da, 35 urtetik beherako gazteek, baliabide ekonomiko urriak dituzten familia gurasobakarrek, eta baita erregimen bereziko etxebizitza babestua lortzeko baldintzak betetzen dituzten beste kolektibo batzuek ere etxebizitzak eskuratu ahal izateko sistema gisa.



Alokabideren funtzioa babes ofizialeko etxebizitzaren zati handi baten alokairua kudeatzea da Euskal Autonomia Erkidegoan, euren sustapen ofizialetatik datozen etxebizitzak edo baita Visesa-rekin kontzertatuak ere, eta beste erakunde batzuetako (Eusko Jaurlaritzak edo Udaletako) etxebizitza-parketik datozenak.

2009. urtean sustapen berriak eskuratu dira, 7,7 milioi euroko zenbatekoan, 111 etxebizitza alokairuan jarri ahal izateko: etxebizitza horiek Laudion (34), Etxebarrin (45), Soraluzen (16) eta Tolosan (16) daude kokatuak. Bestalde, Sozietatea alokairuko 2.004 etxebizitza ari da kudeatzen gaur egun.

ORUBIDE

Sozietate honek bizitegi-lurzoruko eragile bezala jokatzeko du Euskal Autonomia Erkidegoan, jarraian lurzoru hori eragile publikoei nahiz pribatuei baldintza egokietan eskaintzeko, etxebizitza sozialen premiak edo eskasiak osatzeko, batik bat, eta baita etxebizitza libreentzako ere, lurzoru mistoetan, arrazoizko prezioetan, dela aldea aurretik lurzorua eskuratuz edota lur-jabeen kontura hirigintzako jardura kudeatuz soilik.



2009. urtean 270 hektareako azalera hartzen zuten lursailak ari ziren kudeatzen guztira, eta horiek 13.424 etxebizitzatik gora egiteko adinako lurzoru urbanizatua eman dezakete, izanik 6.424 sustapen propiokoak erregimen babestuan.



GESFIR Back Office-ko Zerbitzuak

Euskal Aurrezki Kutxek, erakunde espezializatu batekin batera, badute sozietate berezi bat; sozietate horren helburua da hipoteka-eragiketei eta horiekin lotutako bestelako eragiketei buruzko dokumentuak (eskriturak, salerosketa eta kantzeldazioak, esaterako) kudeatzea eta izapidetzea.

EKARPEN

Euskal Aurrezki Kutxek (BBK, Kutxa eta Vital-ek), Eusko Jaurlaritzarekin eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiekin batera, EKARPEN Sozietatea eratu zuten 2008ko uztailearen 1ean, euskal enpresei globalizazio ekonomikoa, enpresen arteko lankidetzaren sustapena eta aliantza estrategikoak, edo euren finantzaketa eta kudeaketako ahalmenaren optimizazioa bezalako erronkei aurre egin ahal izateko modua emango dieten partaidetza industrialak hartzeko prozesuak kudeatzeko helburuarekin.

Sozietatearen inbertsioak enpresen sektorerako, oro har, bideratuak egongo dira, proiektu guztiek balioa sortzeko gaitasun potentzial handia eduki beharko duten arren. Eta zentzu honetan helburu gisa ezartzen da Euskadirentzat erakarmen estrategikoa duten sektore berritzaileei laguntzea, proiektuak neurri edo dimentsio egokia duen heinean.

Informazio ekonomiko-finantzariora

5

Krisi ekonomiko eta finantzarioa sakonduz joan da 2009ko ekitaldiak iraun duen bitartean eta horrek nazioarteko merkataritzako trukeak moteltzea eta langabeziaren tasak igotzea ekarri du, ondoriorik garrantzitsuenak aipatzearen. Eta egoeraren gordintasuna ikusita, historia ekonomiko modernoan aurrekaririk gabeko inoiz ez bezalako laguntza eta bultzada eskaini diote agintari ekonomiko eta monetarioek, krisiaren irteera erraztu asmoz.

Ekitaldiaren azkeneko zatian, ordea, nolabaiteko suspertzea iradokitzen duten zeinuak sumatzen dira herrialde gehientsuenetan, herrialde emergente esaten zaienetan bereziki; izan ere, herrialde horiek krisi-egoerari emandako erantzuna herrialde garatuena baino nabarmen hobea izan baita, nazioarteko ordena ekonomiko berri baten lehen pausoak jartzeraino.

Testuinguru zail horretan, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek % 1,3an gehitu dituzte emandako kredituak, eta administratutako baliabide komertzialak ere % 3,7an egin dute gora, zergen aurretik 576 milioi euroko emaitza lortuz horren guztiaren ondorioz.

Ingurune ekonomikoa eta finantzarioa 2009an

2009ko ekitaldiaren ezaugarririk garrantzitsuena izan da 2008. urteko azkeneko zatian hasi zen krisi ekonomikoa eta finantzarioa sendotu eta sakontzea. Eboluzio horren osagairik nabarmenenak bezala nazioarteko elkartruke komertzialen apaltzea eta langabezia-tasak gora egitea aipatuko genituzke.

Era berean, 2009ko jarduera ekonomikoak aurrez inoiz ez bezalako bultzada jaso duen ekitaldia bezala ere gogoratuko dugu, krisiari irtenbidea eman nahian politika monetario eta fiskalen bitartez artikulatutako estimuluen bidetik. Horrela, bada, garrantzi berezia hartzen du munduko ekonomia nagusietako agintari ekonomiko eta monetarioek bete zuten paperak eta aurrera eraman zuten ahalegin bateratuak.

Ekitaldiaren azken aldera, ordea, eta aurreko esfortzu ikaragarriaren ondorioz, baina baita eragileen konfiantzaren baitan izandako nolabaiteko suspertzearen ondorioz ere, aurreneko susperraldi-zeinuak hasten dira agertzen herrialde gehientsuenetan, emergenteak esaten zaienetan batez ere, azken herrialde horietan krisi-egoerari eman zaion erantzuna herrialde garatuetan emandakoa baino nabarmen hobea izan baita. Izan ere, bi talde handi bereiz daitezke herrialdeen artean, krisi-egoerak horietako bakoitzean eduki duen eraginaren mailari eta garrantziari begiratuz gero. Horrexegatik, herrialde garatuen eta herrialde emergenteen arteko jokabide edo portaera desberdin horrek ezinbestean eskatzen du, suspertzeari, batetik, eta oreka berreskuratzeari, bestetik, bideratutako politika ekonomikoak kasu bakoitzean nola banatu diren argitzea. Krisiaren eragina desberdina izan da, beraz, eta horrek zaildu egin du politika ekonomikoko neurri orokorrak ezartzea; taldeetako baten mesedetan hartzen ziren neurriak ez baitzuten, printzipioz bederen, beste taldearentzat inolako irabazirik suposatzen. Eta xehetasun horrek suspertzeko abiaduran eta baita krisitik irteteko abiaduran ere izan du bere eragina.

Ekonomia garatuek bere onera etortzeko joera argia erakutsi dute urtearen bigarren zatian: susperraldi hori hazkunde-tasen gorakadan edo, bestela, gainbeherako erritmoen mantsotzean nabarmendu da. Gertaera hori erraz sumatzen da, hain zuzen ere, AEBetan bezala baita Japonian ere. EBn ere ikusi da gertaera hori, Hegoaldeko ekonomien kasuan izan ezik, eta horien artean dago Espainia, Grezia eta Irlandarekin batera.

Lehenengo taldeko adibiderik garrantzitsuena bezala, Estatu Batuetako ekonomiak gainbeherako bidea hartu zuen 2008ko hirugarren hiruhilekotik aurrera, une horretan abiatu baitzen formalki gerora munduaren enparatuko ekonomia errealetan bere ondorioak ekarriko zituen krisi finantzarioa, eta segidan beherantz jarraitzen du, 2009ko aurreneko hiruhilekoan bere BPGaren hiruhilekoen arteko hazkundean -% 1,6ko minimoa ezartzeraino. Hortik aurrera suspertzeko bideari ekiten dio, hurrengo hiruhilekoetan beharakada txikiagoak erakutsiz eta ondoren arrasto positiboan sartzen da urteko hirugarren hiruhilekoan, % 0,6ko hazkundearekin. Laugarren hiruhilekoan % 5,7ko igoera urtekotua erakusten du, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuz gero, azken urteetako handiena hain zuzen ere, eta horren ondorioz 2009. urteko BPGaren urte arteko aldaketa -% 2,4koa izan da. Ekitaldiaren bigarren zatiko susperraldi hori produkzio industrialean izandako aurrerapenetan eta produkzio-gaitasunaren erabilera handiagoan nabarmentzen da. Horrez gain, etxebizitzaren merkatuan ere (hortxe agertu baitziren krisi finantzarioaren lehenengo sintomak) aurrerapausoak ikusten dira hasitako etxebizitzetan, eraikuntzako baimenetan eta salmentetan. Kontsumitzaileen konfiantzari buruzko indizeek, euren aldetik, aipatu suspertzeko bideari ekin diote, eta lehen baino enplegu gutxiago suntsitzen da (langabezia-tasa % 10 inguruan kokatuz). Merkataritza-balantzaren desorekak ere ez dira orain aurrekoak bezain sakonak, esportazioek gora egin dutelako, eta inf azio-tasa berriro bide positibora itzultzen da (% 1,8 azaroan), urtean zehar bizi izandako gainbehera-fasea eta def azio-arriskuen itzal iluna atzean utzi ondoren.

Ekonomia garatuen artean, AEBek baino lehenago ekin zion Japoniak bere gainbehera-prozesuari eta bere erorialdia gogorragoa izan da, 2008ko hirugarren hiruhilekoan ikusiabartu-edo uste izan zen suspertze arina ez baitzen azkenean erabat gauzatu;

erorrialdia, aitzitik, are handiagoa izan zen, ondoren, 2009ko lehen hiruhilekoan hazkunderik txikiena izateraino —-% 3,2koa— eta bigarren hiruhilekoan hazkunde positibora itzultzeko. Japoniako ekonomiak egin duen suspertze-bideak W baten forma jarraitu izan du, beraz. Azkeneko datuek hiruhilekoen arteko tasaren murrizketa erakusten dute behin berriz, eta horrela -% 0,4an kokatu da berriro ere tasa hori, urtetik urterako % 5,3ko beherakadarekin.

Azkenik, Euroguneak etengabeko gainbehera izan du bost hiruhilekoz jarraian, urteko aurreneko hiruhilekoan -% 2,4ko datuarekin, eta hiruhilekoen arteko tasari dagokionez, % 0,3ko datu positiboarekin ekitaldi bereko hirugarren hiruhilekoan. Kanpo-sektorearen tirakada handiagoak eragin du susperraldia, horrekin batera esportazioek gora egin baitute, aldi berean nazioarteko merkataritzatasek eta ekonomia emergenteek ere hobera eginez. Gainera, aurreko guztiari laguntza publikoaren aldetik izandako bultzada izugarria ere gehitu behar zaio; horrek kontsumo publikoaren igoera handia ekarri du. Era berean, ekitaldiaren itxieran eragileen konfiantzak eta erosketa-zuzendariei egindako inkestak pixkanaka hobera egin dutela erakusten duten sintomak (industriaren eta zerbitzuen konfiantza-adierazle hobekuntzak) ere agertu dira, eta gauza bera adierazten dute Europako Batzordeak kontsumitzaileen konfiantzaren inguruan egindako ikerketa eta inkestek ere. Eta hori guztia produkzio-gaitasunean, eskabidezorran eta esportazioko igurikimenean erabilera-mailetan aurrerapausoak azaltzeaz gain. Eurogunea, 2009ko itxieran % 1,5eko BPGaren iragarpenarekin, Eustaten aurreikuspenen arabera, 2009. urtearen amaieran herrialde gehientsuenetan (Espainian, Italian edo Grezian izan ezik) ikusten ziren suspertzeko joeren barruan sartzen da horrela, 2010eko urtean zehar erabateko susperraldia modu garrantzitsuan baldintzatuko duten desoreka nabarmenak oraindik ere indarrean jarraitzen badute.

Herrialde emergenteek hobeki erantzun diote egoera latzari, eta berorien hazkunde-tasak berriro ere indarra hartu dute ekitaldiak aurrera egin duen heinean. Nabarmena da ekonomia hauek mundu mailako BPGaren sorkuntzari egindako ekarpenean izan duten aurrerakada. Txinak, adibidez, bi digituko hazkunde berreskuratu du bere BPGaren igoeran ekitaldiaren amaieran, eta India edo Brasil bezalako beste herrialde batzuetako ekonomiek ere portaera oso onak izan dituzte. Horren guztiaren ondorioz, herrialde garatuek orain arte mundu-mailako aberastasunaren sorreran izan duten garrantzi erlatiboa behar bezala pixkanaka, herrialde emergenteek arlo horretan erakusten duten indar edo bultzadagatik.

Azpirarratzeko modukoa da ekonomia txinatarraren portaera, herrialde horretako BPGak izan duen hazkunde-tasa urte arteko % 8,9 izatera iritsi baitzen 2009ko hirugarren hiruhilekoan. Produkzio industrialaren suspertze-zeinu nabarmenekin, azken bi urteotan urte arteko zifra maximoak lortu baitira, enpresen konfiantza-maila, txikizkako salmentak eta higiezin sektorea asko ari dira hedatzen herrialde horretan. Kanpo-sektoreak merkataritzako superabitu handia azaltzen du, eta horri esker Txina mundu osoko hornitzaile nagusi ari da bihurtzen, dolarrekiko eta euroarekiko kanbio-tasa murriztari eusten dion moneta baten babesean. Aurreko baldintza horietan oinarrituz, erraz uler daitezke kanpoko merkatuetarantzko joera argia, batetik, eta inportazioetan aurrera egiteko dituen zailtasunak, bestetik. Hala eta guztiz ere, Txina gailentzen da Asiako ekonomia emergenteen goranzko mugimenduan, gainerako herrialdeak, intentsitate txikiagoarekin bada ere, hedapen-bidetik baitoaz argi eta garbi.

Herrialde emergenteen beste talde nagusia Latino Amerikan dago kokatua, baina talde hori osatzen duten herrialdeen portaeran desberdintasunak handiagoak dira batetik bestera. Brasilen kasua da nabarmenezko modukoa, lortutako emaitza onengatik, “mirari brasildarraren” paradigma bilakatzeraino. Bere produkzio industrialak % 5,1eraino iritsi da, baina baita infazioa % 4,2ra ere, azaroan bi-biak.

Nazioarteko merkatu finantzarioek 2008an zehar bizi izan duten mesfidantzako giroa baretuz joan da poliki-poliki, ia erabat desagertzeraino, likideziko tentsioak krisiaren unerik latzenetan erregistratutakoak baino maila askoz ere apalagoetan finkatuz joan diren heinean. Epe laburrean, politika ekonomikoan hartutako neurriek zikloa berraktibatzea lortu dute, herrialde batzuetan hazkunde positiboak izateraino. Zentzu honetan, munduko bi banku zentral nagusiek, Europako Banku Zentralak (EBZ) eta Estatu Batuetako Erreserba Federalak (Fed), 2009ko ekitaldian ekonomia orokorrak hobera egin duela jaso dute euren txostenetan, eritmo apalean izan bada ere.

Politika monetarioaren ezaugarria bere lasotasuna izan da, Atlantikoaren bi aldeetan, eta merkatuetan konfiantza berreskuratzeak arrisku txikiagoko aktiboak arrisku-maila handiagoko beste modalitateetara desplazatzea ekarri du. Horrez gain, finantzaketa-eskaeretan, mugimendua epemugarik handieneko finantzaketa-eragiketetara bideratzen da. Erreserba Federalesko erreferentziako interes-tasak murrizketa ikaragarria jasan zuen 2008. urtearen amaieran, % 0,25ean kokatuz eta hortxe eutsi zion, 2009ko ekitaldi osoan zehar, batere aldatu gabe. Eurogunean, berriz, interes-tasek beherazko bidea hartu dute, nahiz eta AEBetan baino intentsitate apalagoarekin egin behera. Horrela, urtebeterako Euriborra % 1,23 inguruan kokatzen da (% 3,95ean zegoen duela urtebete); 3 hilekoa aurreko itxialdian zuen % 2,89tik oraingo % 0,72ra pasatzen da eta EBZren enkanteak, aldiz, % 2,5etik % 1era epealdi berean. Alegia, interes-tasen uzkurraldia behatzen da, argi eta garbi, eta horrekin batera larrialdi edo premiazko neurri ugari jarri direla martxan, jarduera ekonomikoaren berraktibazioari bultzatzeko laguntza moduan.

Moneta nagusien kanbio-tasak dolarren balio-galera adierazten dute yenaren, libera esterlinaren eta franko suitzarraren aurrean, beste batzuen artean, Euroari begira balioa irabazi duen bitartean, urtearen itxierarekin 1,48 \$/€ inguruan baitzegoen kokatua. Txinako monetak, renminbiak, modu garrantzitsuan bultzatu du produktu txinatarren lehiakortasuna dolarretan izendatutako merkatuetan, lehendik aski azpibaloratua baitzegoen eta merkatuaren gorabeherak ez baitote inolako aldaketarik eragin.

Zor publikoko merkatuek portaera egonkorra eduki dute, eta bonuen jaulkipenak gorakada garrantzitsua izan du defizit publiko gero eta handiagoak finantzatzeko, defizit horiek bereziki gogorak eta nabarmenak izaki herrialde garatuetan. Prozesua ez da, hala ere, tentsiorik gabea, eta EBko hegoaldeko zenbait herrialdetan interes-tasen diferentziales izan duten zabalkundeetan islatzen dira bere agerpen-zeinurik berrienak.

Errenta finko korporatiboak enpresen aldetiko jaulkipen-jarduera gogorra islatzen du, izan ere enpresek erritmo handian kolokatzen baitituzte euren bonuak, merkatuek bizi dituzten baldintza egokiak aprobetxatuz. Gorakada handia gertatu da jaulkitako aktiboen bolumenari dagokionez, euroaren eraginpeko eremuan batik bat, eta horrek maileguen bidezko bankuen betidaniko finantzaketaren ordezko lekua hartu du, ohizko bideak abiatzeko eta martxan jartzeko zailtasunak baitauzka itxuraz bederen. Eta jaulkipen-bolumen handiagoez batera arrisku-primen murrizketak gertatu dira lehen mailako merkatuetan.

Inbertsio-funtsek garrantzizko papera jokatzen dute, EBZren arabera, bitartekari finantzario gisa, sektore egoiliarren eta ez-egoiliarren portaerari buruzko informazioa eskainiz, eta, aldi berean, eragina dute baita kapitalen merkatuen eboluzioan ere beren inbertsio-politikari esker, prezioak finkatzen lagunduz. EBko inbertsioko funtsen sektoreak susperraldi bat erakusten du argi eta garbi 2009ko bigarren zatian, aurreneko seihilekoan bizi izandako atoniaren ostean. Gertaera horren arrazoiak interes-tasen kurbak egin duen aldapa gogorrean bilatu behar dira, malda horren ondorioz epe luzeagorako eta arriskurik handieneko aktiboen posizioak bilakatu baitira guztietan erakargarrienak.

Errenta aldakorreko merkatuek, ekitaldiko lehen hiruhilekoan gertatu zen kotizazioen gainbehera ikaragarriaren ondotik, suspertzeko bide argia egin dute hurrengo epealdietan. Indize orokorrek errentagarritasun metatu altuak erakusten dituzte, Dow Jones indizearen % 28tik hasi eta Nasdaq indizearen % 55era bitartean baitabilza, Standard&Poors indizearen % 36tik pasatuz Estatu Batuetan. Europako Burtsak ere ez dira atzean geratu eta % 33ko errentagarritasun metatua erdietsi dute eurogunean; IBEX35 indizeak, esaterako, % 29,8ko errentagarritasuna dauka. Eta interes-tasen maila murriztua, igurikimenean hobekuntza eta epe laburreko aukera tradizionalak eskainitakoak baino errendimendu altuagoak bilatzea izango lirateke gertaera hori azaltzeko aipatzen diren arrazoiak. Ildo berean kokatzen da merkatu finantzarioetan bizi izan diren bat-egite eta eskuratzeko-eragiketen ugalketa, merkatu horien baitan ikus daitekeen berregokitze eta berregituraketako prozesu orokorraren barruan. Eboluzio horrekin batera murrizketa garrantzitsua gertatu da errenta aldakorreko merkatuen hegazkortasunean, ekitaldiak aurrera egin duen heinean.

Eurogunean, erakunde finantzarioek sektore pribatuari emandako maileguek indarra galdu dute, laugarren hiruhilekoan -% 0,6ko hazkunde negatiboan kokatzeraino. Etxeei emandako kredituaren osagaien artean, murrizketak izan dituzte kontsumorako kredituak (-% 0,1abenduan), etxebizitza eskuratzeko maileguetan, aldiz, gorakada bat sumatzen den bitartean (% 1,5ekoa). Epeen arabera, berriz, esan beharra dago ekitaldiaren amaieran epe laburrenako finantzaketa-eskaera gutxiago gertatzen direla, eta bost urterako edo gehiagorako eragiketek, aitzitik, gora egin dutela. Eta horrekin lotuta egon daiteke ezen ikusiz merkatuaren baldintza egokiak (interes-tasak maila historikoki baxuagoetan finkatu direla), enpresek nahiago dutela epe luzeko finantzaketa-eskaerak gehitzea, epe laburrera interes-tasek eduki ditzaketen balizko igoera posibleetatik babesteko. Era berean, etxeetako finantzaketa eskasagoarekin batera desapalankamendu-prozesua ere agertzen da, familien aurrezkiaren gorakada garrantzitsuak gertatuz.

Ez da ikusten infazioaren aldetiko presio gogorrik eurogunean. Zenbait hiletan beherakadak izan ondoren, Kontsumoko Prezioen Indizeak erregistro positiboa izan du (+% 0,5ekoa) azaroan, eta horren bide beretik doa baita abenduko % 0,9ko datua ere. Petrolioaren prezioek izandako gorakada, ibilgailu pribatuentzako erregaien eta lubrifikatzaileen prezioek izan duten gorakadarekin batera, legoke azken datu horien oinarrian. Epe ertaineko perspektibatik ikusita, prezioen eboluzioa % 2aren inguruan finkatzea izango litzateke helburua.

Testuinguru horrexetan betetzen du, hain zuzen ere, ekonomia espainiarrak bere jarduera. Ingurunearen konplexutasunak edo kanpoko merkatuen eboluzioarekiko dagoen mendekotasun ikaragarriak, batetik, eta horiekin batera Espainiako ekonomia krisian beranduago sartzea, egitura-mailako ezaugarri intrintsekoak, eraikuntzaren sektoreak balio erantsiaren sorkuntzan duen eragin handia eta abiapuntuan zeuden desorekak bezalako faktoreek, ezin hobeto erakusten digute zer-nolako zailtasunei egin behar dien aurre, bere inguruko ekonomia batzuk suspertzeko lehen zeinuk erakusten hasi diren une berean.

Ekonomia espainiarraren eboluzioak ezaugarri bereziren bat izan baldin badu aurten, enpleguaren suntsiketa garrantzitsua eta defizit publikoaren gorakada izan dira horiek, kontrako beste bi faktoreen konbinazioa dela medio sortu direnak. Alde batetik, jarduera jaistea sarrera publikoen murrizketa gogorrarekin lotua doalako, eta langabezia handitzeak, bestetik, egoera okerreanean dagoen jendearenganako gizarte-mailako transferentziak gehitzea dakarrelako.

Lehenengo hiru hiruhilekoek aurrera egin zuten heinean, narriadura-prozesua gutxituz zihoala eta egoerak hirugarren hiruhilekoan bere hondoa jo zuela erakusten zuten seinaleak eman izan ditu ekonomia espainiarrak: bere BPGaren beherakada % 0,3koa izan da hiruhilekoen arteko tasan, eta jarraian % 0,1eko beherakada laugarren hiruhilekoan (hori baino lehenago bigarren hiruhilekoan -% 1,1ekoa eta aurrenekoan -% 1,6koa erregistratu ondoren). Horrela, urte arteko tasak -% 3,6ko BPGaren uzkurraldia erakusten du.

Azpimarratzeko modukoa da barne-eskariaren hondoratzea izan dela beherakada horren arrazoi nagusia. Aldeko baldintza finantzarioak, igurikimen positiboak edo higiezinekin lotuta agertzen den aberastasun finantzarioaren eraginaren etengabeko gorakada izan daitezke familiek eta enpresek beren zorpetze-maila modu oso garrantzitsuan gehitu izana azaltzen duten faktoreetako batzuk. Panorama finantzarioan gertatu den bat-bateko aldaketak eta ekonomia errealerako trasladoak, eragin garrantzitsua daukate agente eta eragileen konfiantzan, gaur egun bizitzen ari garen krisi-egoerari lotutako ondorio negatibo potentzialen baitan desapalankamenduko prozesu azeleratu bat abian jartzeraino. Eskari nazionalak 5,3 puntuko beherakada itzela izan du laugarren hiruhilekoan eta BPGari dagokionez nazio-mailako aberastasunaren sorkuntzari % 2,2ko ekarpena egiten dion kanpoko sektoreak zati batean besterik ez du konpentsatzen beherakada hori. Bere osagai nagusiek uzkurketa-bideak erakusten dituzte kontsumo pribatuaren atalean (-% 3,5), inbertsioaren gainbehera (-% 12,9) ere azaltzeaz gain, 'ekipamenduak eta beste' izeneko sailari (-% 15,3) eta 'eraikuntza' izeneko sailari (-% 10,2) dagokien ikuspegi bikoitzean. Kontsumo publikoa da krisiaren unerik gogorrean indarrez gora egiten duen barne-eskariaren osagai bakarra, baina ondoren apalduz doa pixkanaka (% 0,8), gainerako eragileen beherakada izugarriari aurre egiten eta hura orekatzen saiatzeko duen gaitasun edo ahalmena hondatuz doan heinean.

Kanpoko sektorearen ekarpen positiboari dagokionez, adierazi beharra dago ohizkoa edo normala den prozesuaren alderantzizko gertaera batengatik izan dela. Horrela, kanpo-sektorearen ekarpen nagusia inportazioak gaindituko lituzketen esportazioen hazkunde gogorretik etorri beharrean, eta horixe litzateke gertaerarik onena aukeran, erabat alderantzizko fenomeno gertatzen da, hain zuzen ere. Zeren eta laugarren hiruhilekoan ondasunen eta zerbitzuen inportazioen beherakada (-% 9,6koa) esportazioei dagokien uzkurraldia baino handiagoa baita (-% 2,9koa), eta hori Espainiako ekonomiaren kanpoko saldoaren eragin kaltegarri baten ondorioz hazkundera egindako ekarpen positibotzat uler daiteke.

Zenbait adierazlek, politika ekonomikoko neurri espezifikoaren ondorioz kasu batzuetan, automobilen matrikulazioa esate baterako, eta kanpoko merkatuen suspertzearen ondorioz beste kasu batzuetan, eragin positiboa daukate eragileen konfiantzan eta perspektibetan, berriro kontsumoaren gain eta, beraz, baita jarduera-mailaren gain ere, presioa egiteko, modu apal eta herabe samarrean baldin bada ere.

Bestetik, eta eskaintzaren ikuspegitik, higiezinaren merkatuan egindako doikuntzak, etxebizitzaren prezioen murrizketak, edota hipoteken prezioen murrizketak ez dira aski bukatutako etxebizitzaren stock izugarria zurgatzeko (oraindik ere saldu gabe milioi bat inguru etxebizitza daudela kalkulatu da gaur egun), eta horregatik sektore honetan egin beharreko doikuntzak handia eta garrantzitsua izan behar du ezinbestean.

Espainiako ekonomiaren betidaniko euskarria izan den zerbitzuen jarduerak behealdia jota jarraitzen du, ekitaldiak aurrera egin ahala turismoari lotutako adierazleek nolabaiteko hobekuntza erakusten duten arren.

Industriak, bere aldetik, soberakin garrantzitsuei egin behar die aurre bere produkzio-gaitasunean eta baita instalazioen erabilera-maila apalari ere. Eskabideen zorroak ez dirudi berraktibazioko zeinu nabarmenik erakusten duenik. Aurretik aipatutako xehetasun horiek guztiek bere eragina dute lan-merkatuan. Hortxe irauten baitute desorekek inon baino luzaroago eta garbiago. Ekitaldiaren amaieran langabezia-tasak 4 milioi inguru langabe ematen dizkigu. Zifra horrekin Espainia herrialde europarren azken muturrean dago kokatua aldagai honi dagokionez.

Kontsumoko prezioen indize harmonizatuak jarduerak izandako eboluzioaren ildo beretik egin du bere bidea. Hilabetez hilabete erregistro negatiboak eman ondoren, urte-amaieran % 0,9ko datua lortu du, eta horrek ordura arte mehatxagarri agertzen zen defazioaren mamua uxatu egin du nolabait. Ildo beretik, prezio industrialek ere % 0,9 egin dute gora eta Europako inf azioranzko konbergentzia edo bat-egitea gertatu da, horrek dakarren inf azio-diferentzialaren murrizketarekin. Enpleguaren suntsiketa gogorrak, bestalde, aurrerapausoak dakartza produktibitatean eta laneko kostuetan. Horri prezioetan izandako konbergentzia gehitzen badiogu, erraz ulertuko da ekonomia espainiarraren produktibitatean gertatutako hobekuntza.

Merkataritz-balantzaren islatzen den kanpoko posizioa 41 mila milioi euroko defiziteraino iritsi da azaroan. Kontu korronteko balantzak, bere aldetik, eta horren barruan sartzen dira zerbitzuak, errentak eta transferentziak, 50 mila milioi euroko defizita erakusten du. Espainiako ekonomiaren finantzaketa-premiekin BPGaren % 6ren adinako balioa dute.

Hego Euskal Herriko ekonomia

2009ko ekitaldia urte zaila izan da EAEko eta Nafarroako ekonomientzat ere. Lurralde horietan BPGak $-3,3\%$ eta $-2,5\%$ maila lortu du, hurrenez hurren. Erreferentziako ekonomiek, Espainiak eta EBk, izandakoak baino beherakada txikiagoak dira, eta ziklo ekonomikoa bi eremu horietan nolabait atzeratua dabilela erakusten du horrek.

	2006		2007		2008		2009	
	EAE	NAFARROA	EAE	NAFARROA	EAE	NAFARROA	EAE	NAFARROA
BPG ERREALA	4,2	3,9	3,9	3,8	2,0	1,9	-3,3	-2,5
JARDUERA-TASA	58,36	60,77	57,76	60,31	58,15	60,65	57,4	59,7
LANGABEZIA	6,67	4,58	5,73	4,28	8,33	8,12	11,5	10,5
KPI	2,60	2,10	4,20	4,20	1,90	1,20	1	0,5

Iturria: Eustat, Nafarroako Institutua Estatistika, elaborazioa propioak

Euskal ekonomiak barne-eskariaren eboluzio oso ahula erakusten du ($-3,2\%$ laugarren hiru hilera), kontsumo pribatuaren bultzadarik ezaren eraginez, eta horrek uzkurketako bidea ezartzen du ekitaldian zehar ($-2,6\%$). Kontsumo pribatuaren adierazleek atonia horixe bera erakusten dute, oro har, turismoen matrikulazioak izan ezik. Azken horrek, ibilgailuak erosteko emandako zuzeneko laguntzen babesean, $14,2\%$ egin baitu gora (abenduko azkeneko datuak prozesua bizkortu egin dela erakusten du, saldutako turismoak 4.340 izan baitira).

Sarrera fiskalek izan duten beherakada nabarmenak ($-15,9\%$ koa izan da datu hori 2009an) baldintzatzen du hazkunde ekonomikoa egindako ekarpen publikoa, Araban aurreko ekitaldian sortutako aparteko diru-sarrera fiskalen kobrantzak azken orduan nolabait beherakada hori baretzea lortu badu ere. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako gastu korronteen gorakada handiak ($+15,5\%$ koa) eta Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunak ezarritako zorpetze-mugak ez gainditzeko premiak (baimendutako gehieneko defizita BPGaren $2,75\%$ ean jarri zen) jarduteko marjinak murrizten dituzte eta horrek guztiak datozen hiru hilera ere antzeko gorakada gertatuko dela pentsatzera garamatza.

Inbertsioak ere, bere aldetik, ez du hazkunde positiboko sintomarik erakusten ($-7,5\%$ koa izan da), bertan ekipo-ondasunen beherakada nabarmena izan baita (-28% koa). Horrek guztiak barne-eskariaren portaera erabat uzkur eta murriztailea dakar berarekin.

Kanpoko sektorearen portaerak barne-eskariaren gainbehera baretzen laguntzen du. Esportazioek $-11,7\%$ ko eroraldia izan dute, guztira, inportazioena $-12,1\%$ koa izan den bitartean laugarren hiru hilera, eta horrela kanpo-sektoreak BPGaren hazkundera egindako ekarpena positiboa izan da (0,7 pp-koa, hain zuzen ere).

Inportazioek esportazioekiko izandako murrizketa edo uzkurketa handiagoak, saldo komertzialaren hobekuntza ekarri du (414 M €-ko superabita) eta baita estaldura-tasaren hobekuntza ere ($113,7\%$ koa da). EBrekin izandako transakzio komertzialek behera egin dute hiru hilera, $-32,5\%$ esportazioetan eta $-36,6\%$ inportazioetan.

Nafarroako ekonomiak ere beheranzko joera izan duen arren 2009an, bere inguruko ekonomia nagusietan gertatzen denaren antzera, aipatzeko modukoa da urtearen osotasunari begira, Nafarroako Barne Produktu Gordinak $-2,5\%$ egin duela behera 2009an urte arteko terminoei dagokionez ($1,9\%$ 2008an). Eskaintzaren ikuspegitik, industria, eraikuntza eta merkatu-zerbitzuetako jardura txikiagoak azaltzen dira uzkurketa horren arrazoi bezala. Nekazaritzako sektorea eta kanpora egindako salmentak nabarmentzen dira ekonomia nafarraren zutabe garrantzitsuenak bezala. Bestetik, Nafarroan eraikuntza-sektoreak betidanik izandako garrantzia txikiagoa aipa daiteke, lurralde horretan turismoak eta horri lotuta doan bigarren etxebizitzak eragin eskasagoa daukatelako, bere portaera erlatibo hobea azaldu eta argitzeko.


Eskariaren aldetik, etxeetako azken kontsumoan ikusitako gastu txikiagoa eta kapitalaren erakuntza gordinen sumatutako beherakada egongo lirateke portaera horren oinarrian. Hala ere, epe laburragoko ikuspegi batetik aztertuta, alegia hiruhileko batetik bestera izandako eboluziori begira, aipagarria da Nafarroako ekonomia lehenengoetakoa izan dela errezesiotik ateratzen. Izan ere, Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratutako datuen arabera, bi hiruhilekoz jarraian behera egin ondoren, hirugarrenak datu positiboaz jadanik (% 0,5), eta hortik errezesioaren amaiera ondoriozta daiteke termino teknikoetan, ekitaldiari datu positiboarekin amaiera emateko (% 0,1 laugarren hiruhilekoan), datu horren intentsitatea apal samarra izan arren.

Kontsumitzaileen konfiantza

2008. urtearen erdialdean bai Europa mailako eta Estatu mailako, eta baita Autonomia Erkidegoko konfiantzako indizeek ere hartu zuten beherakada gogorreko aldiaren ondotik, geroztik egindako bidea etengabeko suspertzearena izan da 2009ko ondoko ondoko lau hiruhilekoetan zehar, eta horrela, 2008ko azken hiruhilekoan 71ko itxiera zena 93 izatera pasatu da aurtengo ekitaldian. Susperraldi hori nabarmenagoa izan da EAĒren kasuan (hogeit puntu portzentaletik gorakoa urtean), bertan euskal kontsumitzaileen konfiantzak maila polita lortu baitu laugarren hiruhilekoari dagokion inkestan, Estatuako eta EBko indizeak gainditzearaino.

Gertaera horren oinarrian aipatu konfiantza-indizea osatzen duten lau osagaien goranzko eboluzioa sumatzen da. Argi eta garbi geratzen da horrela euskal kontsumitzaileen igurikimeneak nabarmen egin dutela hobera, eta ekonomia eta langabezia, azkeneko hiruhilekoetan izandako errezesio edo atzerakada gogorraren ostean, egonkortzeko joera bat iragartzeko modua ikusten da.

KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA INDIZEAREN COMPARAZIOZKO EBOLUZIOA



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONTSUMO-ADIERAZLEAK

	2009ko IV. hir.	2009ko III. hir.	2009ko II. hir.	2009ko I. hir.	2008ko IV. hir.	2008ko III. hir.
I. Kontsumitzailearen Konfiantza Indizea	93	72	67	70	71	75
Etxeetako egoera ekonomikoari buruzko igurikimenak	94	86	80	79	79	86
Egoera ekonomiko orokorrari buruzko igurikimenak	88	63	63	54	48	65
Langabeziari buruzko igurikimenak	81	43	39	45	50	57
Etxeetako aurrezkiari buruzko igurikimenak	108	94	86	103	106	93

Iturria: FCAVN

Konfiantzaren hobekuntza horrek egoera ekonomiko orokorraren eboluzioari buruzko pertzepzio hobea adierazten du (+40 puntu, indizearen balorazioan) eta baita langabeziarena ere (+31 pp), azken datu hori 81eko balioan kokatzeraino, duela ia bi urtetatik izandako baliorik onena hain zuzen ere. Pentsa zitekeen, hala ere, kontsumitzaileen iritziak langabeziaren okertzeko erritmoa mantsotu egingo dela islatzen duela, eta ez, aitzitik, langabeziaren mailak hobera egingo duela. Gainera, egoera ekonomiko orokorrak okerrera eginez jarraituko duela pentsatzen duten etxeen proportzioa % 82 izatetik % 37ra pasatu da urtebetean, eta are hobera egin dezakeela uste dutenen proportzioa, berriz, % 19raino igo da, duela hamabi hilabete % 2koa besterik ez zen bitartean. Horrela, bada, indizeak azkeneko zazpi hiruilekoetako baliorik onena (88 puntu, hain zuzen ere) lortu du oraingo inkestan.

Gainbeherak bere unerik baxuena pasatu duela dirudienean, eta suspertzeko zantzuak ikusten hasi diren testuinguruan, nabarmentzeko modukoa da era berean urtearen amaieran aurrezteko igurikimenek izan duten gorakada (+14 puntukoa), 108ko mailan kokatuz. Kontsumitzaileak familiako kontuak berrorekatzen hasi dira berriro ere, aurrezki modu garrantzitsuan indartzu eta dagozkien zorpetze-mailak murriztuz.

Finantzaketaren erregulazioa

2009. urtean zehar erregulazioaren eremuan burututako jarduera bereziki gogorra izan da. Nazioarteko krisi-egoerak bultzatuta, munduko agintari desberdinek nazioarteko arkitektura finantzario berriaren oinarria izan eta ingurune osoaren egoera aldakorrera hobeto egokituko litzatekeen erregulazioko marko berria diseinatzeari ekin zioten, merkatuaren funtzionamendu egokia ziurtatu eta etorkizunean gerta zitezkeen krisi posibleak saihestuko litzatekeen erredua hain zuzen ere.

Joan zen urriaren 20an Arrisku Sistemikoen Europako Kontseilua (ESRB, ingelesezko sigletan) eratu zen batetik, eta horrekin batera baita gainbegiratze-lanetara bideratuko diren beste hiru erakunde ere —Banku Agintaritzakoa, Aseguruetakoa eta Errenta Aldakorreko Merkatuetakoa, zehazkiago esateko—, aurrez aipatutako asmo eta nahien adierazgarri.

- 2008ko azaroaren **26ko ebazpena** (urtarrilaren 3ko BOE), Espainiako Bankuko Batzorde Exekutiboarena, Espainiako Bankuaren politika monetarioko eragiketetan bermeko aktiboak onartzeko irizpideak epeei buruz aldatzearen ingurukoa, EBZ/2008/18 orientazioa onartzen duena.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **2009/14/EE direktiba**, 2009ko martxoaren 11koa (martxoaren 13ko EBAO), eta horrek gordailuen berme-sistemari buruzko maiatzaren 30eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 94/19/EE direktiba aldatzen du, estaldura-mailari eta ordaintzeko epeari dagokienez.

- **CNMVren 12/2008 zirkularra**, abenduaren 30ekoa (otsailaren 4ko BOE), Inbertsioko Enpresen eta horien talde sendogarrien kaudimenari buruzkoa (ESI21), erakunde horien kaudimeneko erregimena Europar Batasunean ezarritako arauetara egokitzen duena.
- **CNMVren 2/2009 zirkularra**, martxoaren 25ekoa (martxoaren 31ko BOE), titulazioko funtsen (TF) kontabilitateko araei, urteko kontuei, egoera finantzario publikoei eta informazio estatistikoko egoera erreserbatuei buruzkoa, erakunde horiek merkatuarentzat ahalik eta gardenenak izatea eta aktiboen titulizazioko egiturei Europa mailan jarraipen hobea egitea bilatzen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **2009/44/EE direktiba**, 2009ko maiatzaren 6koa (ekainaren 10eko EBAO), zeinaren bidez aldatzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/26/EE direktiba, maiatzaren 19koa, ordainketa-sistemen likidazioaren irimotasunari eta baloreen likidazioari buruzkoa, eta baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/47/EE direktiba ere, ekainaren 6koa, berme finantzarioko akordioei buruzkoa, elkar konektatutako sistemei eta kreditu-eskubideei dagokienez.
- **5/2009 Legea**, ekainaren 29koa (ekainaren 30eko BOE), erakunde finantzarioetan (kreditu-erakundeetan, inbertsio-zerbitzuetako enpresetan eta erakunde aseguratzaileetan) partaidetza esanguratsuak hartzeko indarrean dagoen erregimena aldarazteko xedapen finantzario jakin batzuk aldatzen dituena.
- **9/2009 Errege Lege Dekretua**, ekainaren 26koa (ekainaren 27ko BOE), bankuen berregituraketari eta kreditu-erakundeen baliabide propioak indartzeari buruzkoa.
- **2/2009 Legea**, martxoaren 31koa (apirilaren 1eko BOE), enpresa ez-finantzarioen aldetik kontsumitzaileekin sinatutako hipoteka-mailaguen edo kredituen eta bestelako bitartekaritza-zerbitzuen kontratazioa arautzen duena, haien babesaren hobetzeko asmoz.
- Batzordearen **2009/83/EE direktiba**, 2009ko uztailaren 27koa (uztailaren 28ko EBAO), ekainaren 14ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/48/EE direktibaren eranskin jakin batzuk aldatzen dituena, arriskuen kudeaketako teknikei dagokienez kreditu-erakundeek euren jardueran duten irisgarritasunari buruzkoa.
- **1817/2009 Errege Dekretua**, azaroaren 27koa (abenduaren 7ko BOE), zeinaren bidez aldatzen baitira uztailaren 14ko 1245/1995 Errege Dekretua, bankuen sorrerari, mugaz gaindiko jarduerari eta kreditu-erakundeen erregimen juridikoaren inguruko bestelako puntu batzuei buruzkoa, eta baita apirilaren 26ko 692/1996 Errege Dekretua ere, kredituko establezimendu finantzarioen erregimen juridikoari buruzkoa.
- **3515/2009 EHA agindua**, abenduaren 29koa (abenduaren 31ko BOE), zeinaren bidez aldatzen baitira Aurrezki Kutxetan Gordailuen Berme Funtsera egindako ekarpenak, abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuak, Ekonomia eta Haziendako Ministerioari esleitzen dizkion ahalmenen arabera.
- **1/2009 CBE**, abenduaren 18koa (abenduaren 31ko BOE), kreditu-erakundeen kapitalaren egiturari eta partaidetzako kuotei, bulegoei, eta erakunde horietako eta gainbegiratutako beste erakunde batzuetako goi-karguei buruzko informazioaren ingurukoa, horien normatiba eguneratu eta deklaratu beharreko datuak harmonizatzeko asmoz, datu horien tratamendua eta kudeaketa informatikoa errazteko helburuarekin.
- **16/2009 Legea**, azaroaren 13koa (azaroaren 14ko BOE), ordainketako zerbitzuei buruzkoa, 2007ko azaroaren 13ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007/64/EE direktiba, ordainketako zerbitzuak barne-merkatuan arautzen dituena, Espainiako ordenamendu juridikora inkorporatzeko helburuarekin.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **2009/110/EE direktiba**, irailaren 16koa (urriaren 10eko EBAO), irailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/46/EE direktiba, Diru Elektronikoko Erakundeek (DEEek) euren jarduerari ekiteko duten irisgarritasunari hala nola erakunde horien zuhurtziazko gainbegiratzeari buruzkoa (Direktiba besterik gabe, aurrerantzean) eguneratu eta ordeztu duena.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **2009/109/EE direktiba**, irailaren 16koa (urriaren 2ko EBAO), ondorengo hauek aldatzen dituenak: Kontseiluaren 77/91/EEE direktiba, 1976ko abenduaren 13koa; Kontseiluaren 78/855/EEE direktiba, urriaren 9koa; Kontseiluaren 82/891/EEE direktiba, abenduaren 17koa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/56/EE direktiba, urriaren 26koa, bat-egiteen eta banantzeen kasuetan bete beharreko prestakuntza eta dokumentazioei dagokienez.

Aurrezki Kutxa Federatuen eboluzioa

2009ko ekitaldian, nazioarteko sistema finantzarioaren panoramak aurreko ekitaldia amaitu zeneko bide gorabeheratsu beretik jarraitu du. Egoera ekonomikoak eta merkatuen egoerak urtearen zatirik handienean beheranzko joera argia izan dutela esan daiteke, sektore publikotik eta instituzio edo erakundeen aldetik likidezia injektatuz, politika monetario hedakorra eginez edo laguntza ugari ezarriz egoera zuzentzeko ahalegin izugarriak egin diren arren, orain arte ezagutu diren krisirik handienetan besterik lortu ez ziren minimoak berreskuratuz. Ezegonkortasuna eta zalantza, beraz, ekitaldiaren ezaugarri behinenak aipatzeko.

Hilabeteek aurrera egin ahala, ordea, joera-aldaketarako zeinuak sumatzen hasi gara, eta agertu dira jardura ekonomiko eta finantzarioaren susperraldiaren lehen zantzuak, berriro ere normaltasunera itzultzeko pixkanakako bideari ekinez. Horrela, merkatu monetarioetan tentsioa gutxituz joan da, oraindik ere krisiaren aurreko mailetara itzuli arteko bidea luzea den arren. Esan beharra dago, dena den, finantzaketako kostuak, urtearen aurreneko zatian posizio altuak izan ondoren, baretuz eta apalduz joan direla pixkanaka, handizkako merkatuetarako sarbidea malguagoa gertatzearekin batera. Enpresek jaulkitako zor korporatiboak protagonismo handia berreskuratu du, interes-tasa erakargarrien babesean, eta horrekin batera finantzaketa-kostuak murriztu egin dira, posizioak epe luzeagoetara gehitzen saiatuz. Distentsio-giro horretan bertan, erakunde finantzarioek euren aktiboak murriztu egin dituzte.

INTERES-TASAK, EPE LABURRERA

	EBZren esku-hartze mota	Banku artekoa 3 hilabete	Euribor Urtebete
Abendua 2008	2,50	3,29	3,45
Abendua 2009	1,00	0,71	1,24
aldaketa op-tan	-1,50	-2,58	-2,21
aldaketa erlatiboa	-60,0%	-78,4%	-64,0%

Iturriak: Espainiako Bankua eta elaborazio propioak.

Hala ere, normaltasunetik oso urrun dauden portaerak ere ikusten dira zenbait aldagaitan. Kredituaren eskaerak beheranzko bidea egin du, eta horrekin batera igo egin dira berankortasun-mailak, egunetik egunera zuzkidura-maila handiagoak eskatuz. Nazioarteko erakunde eta agintari finantzario eta politiko nagusiak nahiko ados daude, oro har, eta denek diote premiazkoa dela sistema finantzarioa, bere joko-arauak eta bere arkitektura instituzionala berregituratzea, azken garaioan bizitakoan antzeko kolapsorik etorkizunean berriro gerta ez dadin.

Gainbegirada finantzarioko sisteman gertatu diren akatsak, krisiarekin nabarmendu direnak, bai izaera espezifikokoak eta baita orokorrean ere, eta sarritan mugaz gaindikoak diren jarduerak arautzen dituzten gainbegirada nazionalen sistemetan gertatutako atzerapenak direla medio, Europako Batzordeak erreforma handiguratsuen sail bat proposatu du arkitektura finantzario europarra goitik behera aldatzeko, eta aldi berean EBko zenbait herrialdek abian jarri dituzte jadanik gainbegiratze-sistemei buruzko erreformak, bere jarduteko eskumen-eremuen barruan herrialde horietako bakoitzak. Sinkroniarik ezak

eta ikuspegi aniztasunak zalantzan edo arriskuan jar lezake, dena den, erreforma horien arrakasta.

Eta erreforma-giro horren baitan sortu da, hain zuzen ere, gainbegiratzeko egitura berri bat Europako Erkidegoaren mailan. Horrela, arkitektura finantzario europarra berrantolatze sistema berri bat proposatzen du Europako Batzordeak, arriskuen kontrolari ekiteko asmoz (European Systemic Risk Board egituraren sorrerarekin) eta baita mugaz gaindiko jardueren kontrolari ere, Espainian Bankuen Berregituraketa Ordenaturako Funtsa edo FROB delakoa sortzen den bitartean sistema finantzarioaren berrantolaketako prozesua errazteko. Aldi berean, Europako Bankuen Agintaritzak, Europako Aseguruen eta Erretiroko Pentsioen Agintaritzak, eta Europako Merkatuen Agintaritzak erakundeak sortzeko pausoak ere eman dira.

Europako zenbait herrialdek egindako jardueren artean sinkroniarik ez dagoenez, oinarrizko adostasuna egin da erreformak kontrol handiagoa eta gainbegiratzeko sistema hobekia lortzera bideratzeko. Beharrezkoa da kapitalaren eskakizunak gehitzea, ongialdi ekonomikoko garaietan bereziki, eta baita likidezia kontrolatzeko arauak indartzea ere. Arrisku sistemikoa dakarten erakundeentzat erregimen bereziak ezartzeko premiak ere guztion adostasuna lortu du, eta gisa horretako erakundeak dira jarduten duten merkatuari begira handiegiak direnak (too big to fail).

Agintari monetarioek ezarritako neurri pizgarrien haritik —eta beste batzuen artean, diruaren tasa ofizialak urtarrean, martxoan, apirilean eta maiatzean ondoz ondo jasandako murrizketetan gauzatzen dira neurri horiek— Euriborrek zuzenketa gogorra izan du, % 1,24an kokatzeraino, maila horrekin itxi baitzuen ekitaldia. Horrela, hiru hileko tasa % 3,29tik % 0,71ra pasatu da (258 oinarrizko puntuko murrizketa 2009ko abenduan, aurreko abenduarekin alderatuz gero) eta urtebeterako tasa, berriz, % 3,45etik % 1,24ra (221 op-ko murrizketa epealdi berean). Interes-tasen murrizketa orokorreko mugimendu oso antzekoak ikusi dira baita Estatu Batuetan, Japonian, Erresuma Batuan, etab.

Horrekin batera, herrialde garatueta defizit publiko gero eta handiagoei aurre egiteko bonuen kopuru handiak erregistratu dituen zor publikoko merkatuak portaera nahiko egonkorra izan du. Hala ere, hegazkortasun gero eta handiagoa ikusten da zor publikoko merkatuetan urte-amaieran, eta horrela merkatuek arrisku-prima gorakorak eskatzen dizkiete beren kontu publikoetan desoreka nabarmenak eta garrantzitsuak dituzten ekonomiek jaulkitako tituluei. Eta konbergentzia eta normalizazioko prozesu baten ondotik, 10 urterako bonu alemanarekiko gehikuntza garrantzitsuak ekarri ditu horrek interes-tasen diferentzietan, urtearen itxieran oinarrizko 60 punturen inguruan kokatuz Espainiaren kasuan.

Dolarraren kanbio-tasa euroarekiko nahiko egonkor mantendu da, % 1,5eko tasaren inguruan betiere.

Aurtengo ekitaldian zehar, bestelako sektore egoiliarrek (BSE) Espainiako kreditu-erakundeetan dituzten gordailuak 1,19 bilioi eurotara iristen dira, eta urtean izandako hazkunde absolutua 36.677 milioi eurokoa izan da, % 3,2koa alegia. Epealdi berean, inbertsio kolektiboko tresnetan kudeatutako ondareak % 3,7 egin du beheira termino gordinetan Espainian eta horrek aurreko ekitaldiaren itxieran baino 6.500 milioi euro gutxiago esan nahi du. Saldo totala 169.900 milioi euroraino iristen da. Balorazioko irizpideei dagokienez, aurreztaileen harpidetzen eta itzulketen guztizko garbiak murrizketa are nabarmenagoa izan du, % 8,6koa hain zuzen ere.

BSEei bideratutako kreditu-inbertsioko jarduerari dagokionez, ekitaldiko azken saldoa 1,84 bilioi eurokoa da, eta hori aurreko ekitaldiko itxieran zeuden 1,86 bilioiekin konparatuz 6.552 milioi euroko murrizketa bat ateratzen da, -% 0,35 alegia. Ondasun-bermearekin emandako finantzaketa, bere aldetik, 1,11 bilioi eurokoa da, % 0,64ko eta 7.055 milioi euroko gehikuntza egin ondoren, eta horietatik 1,07 bilioi euro dira hipoteka-bermea dutenak (+% 0,98 eta 10.450 milioi euro, hurrenez hurren).

Epigrafe nagusien laburpena

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen jarduketa aldagai makroekonomikoek, oro har, jasandako beherazko portaera horren barruan sar daiteke. 2009an erakunde kideen multzoak zergen aurretik sortutako irabazia 576 milioi eurokoa izan da, hau da aurreko ekitaldikoa baino % 9,2 txikiagoa, baina Aurrezki Kutxen sektoreak jasan dituen uzkurketa horietatik nahiko urrun, hala ere.

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Balantze Totalak 78.396 milioi euroko guztizkoa osatzen du 2009an, eta % 1,9 egin du gora aurreko ekitaldiari begira.

Hartzekodunen baliabideek 2.022 milioi euroko murrizketa izan dute (-% 3,4), 57.803 milioi euro osatuz guztira, eta horrek balantzearen % 74 esan nahi du.

Era berean, Administratutako Baliabide Komertzialei dagokienez, eta hor sartzen dira Hartzekodunen baliabideak nahiz balantzean sartu gabe geratu diren bezeroetatik erakarritako baliabideak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeekin eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeekin egindako eragiketei dagozkienak, % 3,7ko igoera izan dute, hau da aurreko ekitaldian baino 2.279 milioi euro gehiago, 63.410 milioi euro osatzeraino guztira.

EAEko AURREZKI-KUTXAK
(balio absolutuak)

Kontzeptua	2008	2009
Baliabide Propioak	5.844	6.109
Hartzekodunak	46.212	44.571
Kreditu Inbertsioa	43.362	44.092
Gizarte Ekintzaren Funtsa	271	328
Balantzea, guztira	58.156	59.012
Irabazia zergen aurretik	484	440
Bulego kop.	891	883
Enplegatu kop.	6.078	5.642

Zifra ekonomikoak milioi eurotan

HEGO EUSKAL HERRIKO FEDERAZIOKO AURREZKI-KUTXAK
(balio absolutuak)

Kontzeptua	2008	2009
Baliabide Propioak	6.977	7.319
Hartzekodunak	59.826	57.803
Kreditu Inbertsioa	56.679	57.388
Gizarte Ekintzaren Funtsa	286	343
Balantzea, guztira	76.904	78.396
Irabazia zergen aurretik	634	576
Bulego kop.	1.270	1.219
Enplegatu kop.	8.050	7.536

Zifra ekonomikoak milioi eurotan

Federazioko Aurrezki Kutxek, egoera ekonomikoak bizi dituen une zail eta latz hauetan, tinko eutsi diote eragile ekonomiko eta sozialekin hartua duten konpromisoari, inbertsio produktiboak egiteko, etxebizitza nahiz kontsumoaren arloko premiak eta oro har eragile horien beharrak asetzerara bideratutako jarduerak finantzatzeko baliabideak eskainiz. Zentzu horretan, kreditu-inbertsioak 57.388 milioi euroko saldoa izan du, hau da 2008an baino 709 milioi euro gehiago, eta horrek % 1,3ko hazkundera esan nahi du. Ondasun-bermea duten eragiketek % 2,2 egin dute gora. Era berean, gure erakundeen balantzean dauden zalantzezko aktiboak ere % 43,2an igo dira, 1.618 milioi eurotaraino iritsiz.

Eta Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen balore-zorroari dagokionez, 12.452 milioi eurotaraino iristen zen horren balioa 2009ko itxieran, eta horrek % 1,4ko igoera esan nahi du aurreko urtearekin alderatuz gero.

Baliabide propioak

Erakunde finantzario batek dituen baliabide propioek baldintzatzen dute erakunde horren kaudimena. Indarrean dagoen lege-esparruak xedatzen duenez, erakundeak bere gain hartzen dituen arriskuak eta baliabide propioetat konputa daitezkeen aktiboak lotzen dituen berme-koefizienteak % 8koa izan behar du gutxienez. Eta konputatzeko orduan, balantzean agertzen diren erakunde zuzkidura-funtsak, erreserbak eta arriskuen multzora bideratutako funtsak hartuko dira kontuan, batez ere. Baliabide propioek ezartzen dute erakunde finantzarioen kapitalizazio-maila. Baliabide horiek indartu eta sendotzea da, hain zuzen ere, gaur egun gehien eztabaidatzen ari den neurrietako bat, etorkizuneko krisi posibleak saihesteko sistema finantzarioei, orokorrean, segurtasun-maila ahalik eta handiena emateko bidean.


Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek erabilgarri izan dituzten kontabilitateko baliabide propioak 7.319 milioi eurokoak ziren 2009ko ekitaldia ixterakoan, aurreko ekitaldian baino 342 milioi euro gehiago, edo % 4,9 gehiago bestela esanda. Eta horrek ondo erakusten du erakunde horiek, beren kaudimen-mailetan aurrera egiteko, urtean zehar kapitalizazioan egindako ahalegina. Baliabide propio konputagarrien zifra horretan, % 75,9 oinarritzko edo 1. kategoriako baliabide propioak dira. Baliabide propioen zifra totalak % 17ko berme-ratioa ematen du, indarrean dagoen legeriak ezarritako gutxieneko eskakizunei dagokienaren halako bi baino gehiago, eta zifra horrek ezartzen du, hain zuzen ere, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen taldeak duen kaudimen-maila altua.

Hartzekodunak

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen balantzeetan agertzen diren hartzekodunen baliabideak 57.803 milioi eurokoak dira, eta aurreko abenduari begira % 3,4ko beherakada izan dute, 2.022 milioi euroko jaitsiera alegia.

Baliabideak eskuratzeko jarduera gordailuen eboluzioan islatzen da, inbertsio kolektiboko eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeekin egindako eragiketen saldo garbiarekin batera.

Bezeroen zorrak
Zenbatekoak milioi eurotan




Baliabide horiek 63.410 milioi euroko saldoa dute, aurreko itxialdiko saldoa 2.279 milioi eurotan gaindituz; sailaren hazkundera, beraz, % 3,7koa izan da.

Administrazio Publiko Egoiliarrek % 5,6ko ekarpena egiten diote Bezeroekiko Zorrak sailaren saldo totalari; eta horren osieran administrazio autonomikoek dauzkaten saldoak nabarmentzen dira batez ere. Sektore pribatutik datozen saldoak Bestelako Sektore Egoiliarrek izeneko atalean agertzen dira, eta zifra horren % 93,2 hartzen dute. Azkenik, Ez Egoiliarretatik datozen saldoek totalaren % 1,2 besterik ez dute hartzen.

Bestelako Sektore Egoiliarrek ataleko saldoen artean, partida nagusia Epeko Ezarpenei dagokie (% 59arekin), eta segidan datoz Ageriko Gordailuak (% 32arekin). Aldi baterako Lagapenek osatzen dute gainerako % 9. Saldo pribatuen osagai desberdinek balantzean duten egitura eta bakoitzaren pisu erlatiboak mantendu egiten dira, oro har.

Aurreko ekitaldian behatutakoaren justu alderantziz, IKEek kudeatutako baliabideen eboluzioa oso positiboa izan da Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen multzoan. Kudeatutako ondarea 7.473 milioi eurokoa izan da guztira, % 12,9ko hazkundera izan ondoren, eta horrek 857 milioi euro gehiago esan nahi du urtean.

Ildo berean kokatzen da borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen, BGAEen eta pentsio-funtsen portaera positiboa, erakunde horiek % 11,04ko hazkundera izan baitute, 513 milioi euroko bariazio positiboari dagokiona hain zuzen ere. Gisa horretan, erakunde horiek kudeatutako ondarearen balioa 5.168 milioi euro inguruan kokatu da 2009ko itxieran.



Azkenik, Balore Negoziagarritan Adierazitako Zorrak sailari eta Mendeko Pasiboei dagozkien saldoak 5.733,1 milioi euroko mailaraino iritsi dira 2009ko itxieran. Eta aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero, zifra horrek 2.430,6 milioi euroko gorakada absolutua suposatzen du edo % 73ko bariazioa, urteko tasari dagokionez.

Espainiako Bankuak argitaratutako datuen arabera, Aurrezki Kutxek zeukatzen 2009ko itxieran, merkatuko kuotarik handiena administrazio publikoen eta bestelako sektore egoiliar batzuen gordailuei zegokienez, bai Nafarroan eta baita EAEn ere.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA BESTE SEKTORE EGOILIAR BATZUEN GORDAILUAK

abendua-09	Bankuak	Aurrezki Kutxak	Kreditu Kooperatibak
Araba	23,5	51,5	25,0
Gipuzkoa	27,7	52,3	20,0
Bizkaia	36,1	50,6	13,2
EAE	31,6	51,3	17,1
Nafarroa	20,1	52,8	27,1

Ondoko datuetan ikus daitekeen bezala, administrazio publikoen eta bestelako sektore egoiliarren gordailuei zegokien merkatuko kuota % 51,3koa zen (-2,1 pp), bankuen sektorearena 31,6koa (+1,1 pp) eta kreditu-kooperatibena % 17,1ekoa (+0,9 pp) zen bitartean. Nafarroan, bere aldetik, Aurrezki Kutxen kuota % 52,8ra iritsi da (-1,0 pp), bankuen sektorearena % 20,1era (0,0 pp) eta kreditu-kooperatibena % 27,1era (1,0 pp) ailegatu diren bitartean.

Iturria: Espainiako Bankua - Buletin Estatistikoa eta elaborazio propioak - 2009ko abenduko datuak.


Kreditu-inbertsioa

Aipatutako krisiaren ondorioz higiezin merkatuan agertu den ezegonkortasunak bere eragina izan du bai kredituen eskaeran eta baita erakunde finantzarioek emandako maileguen orientazioan ere. Sistemaren baitako likideziaren eskasiak, eragileen arteko konfiantza faltak, edo aktibo inbiliarioen balioan gertatu den beherakadak eragin guztiz negatiboa izan dute merkatuan, berankortasunaren gorakada ekarriz eta bertako jardueraren erritmoak murriztu eta laburtuz.

Testuinguru horretan, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek bere bezeroen premia finantzarioei kasu egiten eta horiek betetzen jarraitu dute, bere jarduera merkatuetako baldintza aldakorretara egokituz. Horrela, bada, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek guztira emandako kreditua 57.387,8 milioi eurotara iristen da, alegia 709 milioi euroko finantzaketa osagarria eskaini dute, termino absolutuetan eta horrek urte arteko tasan % 1,3ko hazkundea esan nahi du.

Gorakada horretatik, % 62 (440,4 milioi euro) BSEei dagokie, eta hor hazkunde garrantzitsua izan dute ondasun-bermeko eragiketek (+% 2,2koa), bestelako sektore egoiliarrena % 0,8koa izan den bitartean. Administrazio Publiko egoiliarren kredituak, bere aldetik, 355,3 milioi euroko hazkundea izan du, aurreko ekitaldiko zifra baino % 28 handiagoa. Bestelako sektore ez egoiliarrek, aldiz, 86,5 milioi eurotan murriztu dute bere azken saldoa (-% 13,7 hain zuzen ere).

Finantzaketa osotik, inbertsioaren % 96,2 sektore pribatura bideratzen da eta % 2,9% sektore publikora, gainerakoa (% 0,9 alegia) sektore ez egoiliarra doan bitartean. Modalitateen arabera, sektore pribatuaren barruan, ondasun-bermeko eragiketek % 77 hartzen dute, eta jarraian epeko beste zordun batzuk azaltzen dira, % 19,2arekin, osagairik esanguratsuenak bezala.



Kreditu-inbertsioaren totaletik, etxeetako gastua finantzatzera bideratutako eragiketek guztizkoaren % 64 hartzen dute (+1,8 pp), % 4,7koa izanik urteko hazkundea eragiketa horietan. Produzkioko jardueretara bideratutako finantzaketek totalaren % 33 hartzen dute, eta aurreko urteko zenbateko baliokidearekin konparatuz hazkundea % 2,8koa izan da.

Zalantzako aktiboetan izandako hazkundeak 1.618 milioi eurotan kokatzen du atal horren saldoa ekitaldiaren itxieran, eta horrek 488 milioi euroko gorakada esan nahi du, hau da % 43,2ko hazkunde-tasa, bestela esanda.

Espero zitekeen bezala, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen berankortasun-indizeak gora egin du, oraindik ere aurrezki-kutxen eta gainerako erakunde finantzarioen sektoreak multzoan duen mailaren azpitik dauden arren. Berankortasun-indizea % 2,42koa da urtearen itxieran, izanik % 2,86koa BSE eragiketei dagokien indizea, Horrez gain, zalantzazko eragiketa horien estaldura-tasa % 83,8an kokatu zen.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI ETA BESTELAKO SEKTORE EGOILIARREI EMANDAKO KREDITUA

abendua-09	Bankuak	Aurrezki Kutxak	Kreditu Kooperatibak
Araba	30,8	50,0	19,1
Gipuzkoa	34,7	46,4	18,9
Bizkaia	41,1	46,2	12,8
EAE	37,5	46,8	15,6
Nafarroa	26,1	47,7	26,2


Iturria: Espainiako Bankua - Buletin Estatistikoa eta elaborazio propiokoak - 2009ko abenduko datuak.

Eta kreditu-jarduerari dagokionez, Espainiako Bankuak argitaratutako 2009ko abenduari buruzko datuen arabera, eta Aurrezki Kutxek bai erakunde publikoei eta baita eragile pribatuei ere emandako finantzaketa kontuan hartuz, aurrezki-kutxak dira merkatu-kuotarik handiena hartzen dutenak, dela EAEn % 46,8arekin (+1,5 pp) dela Nafarroan ere, % 47,7ko kuotarekin (+0,4 pp). Jarraian bankuak agertzen dira EAEn kuotaren % 37,5arekin (-2,7 pp) eta kreditu-kooperatibak Nafarroan, % 26,2arekin (+1,1 pp). Hirugarren lekuan, kreditu-kooperatibek bideratzen dute EAEn emandako kredituaren % 15,6 (+1,1 pp) eta bankuek Nafarroari dagokionaren % 26,1 (+0 pp).

Baloreen kartera

BALOREEN KARTERA

(2009ko abenduaren 31n)



Aurtengo ekitaldian zehar Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Baloreen Zorroak 167,1 milioi eurotan egin du gora, hau da % 1,4ko hazkundera aurreko ekitaldiko itxierarekin alderatuz, 12.452,4 milioi euroko saldoa lortuz guztira.

Partaidetzen gorakada garrantzitsua gertatu da, 198,2 milioi euroko hazkunderarekin eta horrek % 4ko bariazioa esan nahi du. Hazkunde hori talde bereko erakundeei dagozkien eragiketetara dago bideratua batez ere. Bestalde, eta partaidetzen gorakadaren zati baten jatorri moduan, Bestelako Kapital Tresnak izeneko atalean ere 107,7 milioi euroko murrizketa bat ikus daiteke, eta horrek % 17,9ko beherakada esan nahi du. Azkenik, Zorra adierazten duten baloreek 76,6 milioi euroko gorakada izan dute, % 1,1eko hazkundera, alegia.

Aktibo likidoak

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek ekitaldiaren itxieran dituzten likideziako posizioak aurreko urtean zituztenak baino handiagoak dira, eta horrek nabarmen jartzen du erakunde horien agregatuan ez dagoela likideziako zailtasunik apenas. Alderdi horri esker etxeko ekonomiei eta ekonomia produktiboei finantzaketa eskaintzea errazagoa gertatu da. Aktibo likidoen saldo agregatua 11.775,7 milioi eurotaraino iristen da, urte arteko % 2,4ko tasaren araberako gorakada suposatuz, 277,2 milioi euroko zenbatekoan hain zuzen ere.

HEHAKF	Balio absolutuak		Aldaketa aurreko urtearekiko	
	2008	2009	2008	2009
1. Kutxa eta gordailuak banku zentraletan	1.201,9	2.548,4	7,3%	112,0%
2. Estatuaren zorrak	6.752,0	6.828,6	53,7%	1,1%
3. Kreditu-erakundeak	3.544,6	2.398,7	0,0%	-32,3%
GUZTIRA	11.498,5	11.775,7	26,9%	2,4%

Zenbatekoa milioi eurotan
Iturria: HEHAKF

Jarraitutako eboluzioan posiziorik likidoenek, —hau da Kutxan mantendutako saldoek eta banku zentraletan egindako gordailuek— izan dute hazkunderik handiena (+% 112,0koa), eta neurri txikiagoan Estatuko Zorrak (+% 1,1). Banku arteko merkatuaren bitartez beste erakunde batzuei lagatako saldoek, euren aldetik, % 32 egin dute behera.

Emaitza-kontua

2009ko ekitaldian, bere aurpegiak zakar eta garratzena erakutsi du krisi finantzarioak. Horren eraginez, sistema finantzarioari laguntzeko neurriekin jarraitu behar izan dute agintari ekonomiko eta finantzarioek, izaera espantsibo edo hedakorreko politikak aplikatuz. Politika horietan erreferentziako interes-tasen murrizketa izan da funtsezko helburuetako bat, ekitaldiaren zatirik handiengan, merkatuei presioa jaisteko modu bezala. Ameriketako Estatu Batuetan edo Europar Batasunean, ekonomiarik aurreratuenen adibide bana aipatzearen, izandako mugimendua desberdina izan da, ordea. Herrialde bateko nahiz besteko arduradun monetarioek euren politikak sinkronizatu beharrean, erreakzionatzeko abiadura oso diferentea izan da. Interes-tasen murrizketak bizkorrago gertatu ziren eta gogorragoak izan ziren Atlantikoaren bestaldean, Europako Banku Zentralak, agian bere arreta guztia prezioei eusteko lanetan jartzeagatik, zentzu berean, bai, baina askoz ere motelago erreakzionatu zuen bitartean.

HEHAKF GALDU-IRABAZIEN KONTU PUBLIKOA, 2009	Zenbateko absolutuak	% BBATen gain	aldaketa %tan BBATen gain
Interesak eta errendimendu asimilatutak	2.546,81	3,31	-1,26
Interesak eta karga asimilatutak	1.382,66	1,79	-1,36
INTERES-MARJINA	1.164,15	1,51	0,10
Kapital-tresnen errendimendua	216,24	0,28	-0,29
Jasotako komisioak	354,04	0,46	-0,02
Ordaindutako komisioak	34,09	0,04	-0,01
Eragiketa finantzarioen emaitza	281,33	0,37	0,25
Kanbio-diferentziak (garbia)	-3,93	-0,01	-0,03
Beste ustiapen-produktu batzuk	33,69	0,04	-0,01
Beste ustiapen-karga batzuk	26,91	0,03	0,01
MARJINA GORDINA	1.984,52	2,58	0,01
Administrazio-gastuak	808,66	1,05	-0,06
Amortizazioa	106,61	0,14	0,01
Hornidurera egindako zuzkidurak (garbia)	150,30	0,20	0,11
Galerak, aktibo finantzarioak hondatzeagatik (garbia)	320,40	0,42	-0,02
USTIAPENEN KONTU JARDUEREN EMAITZA	598,55	0,78	-0,04
Galerak, gainerako aktiboak hondatzeagatik (garbia)	72,06	0,09	0,03
Irabaziak (galerak), salmentako aktibo sailk. ez-arrunten bajaran	51,57	0,07	-0,04
Diferentzia negatiboa negozio-konbinazioetan	0,00	0,00	0,00
Irabaziak (galerak), salmentako aktibo arrunt ez-sailk. eragik. etenak	-2,24	0,00	0,00
EMAITZA ZERGEN AURRETIK	575,82	0,75	-0,11
Irabazien gaineko zerga	17,60	0,02	0,08
Gizarte Ekintza eta funtsetara egin beharreko nahitaezko zuzkidura	0,00	0,00	0,00
AURREKO EKITALDIKO ERAGIK. JARRAITUEN EMAITZA	558,21	0,72	-0,19
Eragiketa etenen emaitza	0,00	0,00	0,00
EKITALDIKO EMAITZA	558,21	0,72	-0,19

Zenbatekoak milioi eurotan
Iturria: HEHAKF

Interes-tasa murriztuen giro batean, eragileen artean mesfidantza eta merkatuetan hegazkortasuna izanik nagusi, batik bat bitartekaritza orokorreko jardueretara bideratuak dauden erakunde finantzarioen kudeaketa zailagoa eta nekosoagoa gertatzen da.

2009ko ekitaldian zehar Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek lortutako Interes eta Errendimendu Asimilatuek 2.546,8 milioi euroko zenbatekoa egiten dute guztira, eta zifra horrek 825,9 milioi euroko beherakada suposatzen du 2008ko datuarekiko (-% 24,5eko murrizketa). Termino erlatiboetan, aldiz, hau da ekitaldian zehar mantendutako batez besteko aktibo totalen (BBATen) bolumenarekin zuzendu ondoren, sarrera finantzario horiek % 3,31 suposatzen dute, izanik beherakada 1,26 puntu portzentualekoa aurreko urteko datu berari begira.

Bitartekaritzako jardueran egindako Kostu Finantzarioak 1.382,7 milioi eurokoak izan dira, eta horrek esan nahi du kostu horiek % 40,6 egin dutela behera. BBATei dagokienez, kostu finantzarioek % 1,79 suposatzen dute, 1,36 puntu portzentual jaitsi ondoren.

Kostu finantzarioek sarrera finantzarioekin alderatuz gero izan duten uzkurketa handiagoaren ondorioz, hobekuntza bat gertatzen da Interesen marjina, eta hobekuntza horrek ez du bitartekaritzako jarduera purua besterik islatzen. Lortutako hazkundea 119,8 milioi eurokoa izan da, saldoa 1.164,1 milioi eurotan kokatuz. Hurbilketa negozioari dagokion terminoetan eginez gero, interesen marjina % 1,51koa da BBATen gain, aurreko ekitaldiari dagokion emaitza 0,10 puntu portzentualetan gaindituz.

2009an Kapital Tresnen Errendimenduek 216,2 milioi euro eman dituzte guztira, eta uzkurto ere, antzeko zenbatekoan uzkurto dira (202,3 milioi euroko murrizketa); sarrerak ere gutxitu egin direla esan nahi du horrek (% 48,3an, hain zuzen ere). Eta BBATei buruzko termino portzentualetan, magnitude horrek % 0,28ren balioa dauka, aurreko urtean baino - 0,29 puntu portzentual gutxiago hain justu.

Komisioengatik sarrera garbi bezala, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek lortutako emaitzak apenas aldatu diren termino absolutuetan: 319,9 milioi euro izan dira guztira, eta zifra horrek 0,42 pp esan nahi du BBATen gain, 0,01 puntu portzentualeko atzerakada izan ondoren.

Eragiketa Finantzarioen Emaitza garbiek hazkunde oso garrantzitsua izan dute, 281,3 milioi eurotara iritsiz guztira (% 0,37 BBATen gain), ekitaldian % 229ko igoera izan eta gero. Osagarik dinamikoak Negoziatioko zorroaren emaitzek egindako ekarpena biltzen du, eta horiek 99,3 milioi euro ematen dituzte (% 0,13 BBATen gain), 2008an izandako 26 milioi euroko galeren beste muturrean kokatzeraino hain zuzen ere. Horrez gain, Ustiapeneko Beste Produktu batzuen eta Ustiapeneko Beste karga batzuen emaitza garbia 6,8 milioi eurokoa izan da, alegia % 0,01 BBATei dagokienez.

Marjina Gordina 1.984,5 milioi eurokoa da guztira, 89,4 milioi euroko hazkundea izan baitu (+% 4,7koa); horrek 0,01 pp-ko igoera esan nahi du, 2008ko % 2,57tik aurtengo % 2,58ra pasatuz, eta beraz aurreko ekitaldikoa baino maila zertxobait altuagoari eutsi dio.

Administrazioko gastuak, eta hemen pertsonaleko gastuak sartzen dira osagai garrantzitsuena bezala, 808,7 milioi eurokoak izan dira, aurrekoak baino 7,2 milioi euro beherago kokatuz. Gastu horiek % 1,05 hartzen dute BBATei dagokienez, alegia gastu hauen murrizketan aurrerapena 0,06 pp-koa izan da.

Zuzkidurek eta Hornidurek nabarmen egin dute gora, Federazioko Aurrezki Kutxen kaudimena gordetzeko erabili izan diren zuhurtziarik handieneko irizpideak aplikatuz. Guztira 150,3 milioi eurokoa izan da atal horren zenbatekoa, hau da iaz baino 89,1 milioi euro gehiago (+% 145,4ko hazkundea). Xehetasun horrek ere bere isla du baita termino erlatiboen azterketari dagokionez ere (BBAT), eta 2008ko 0,08 pp-tik 0,20 pp-ra pasatu da 2009an. Aktibo Finantzarioen Narriaduragatik Galerak, bere aldetik, 320,4 milioi euroraino igo dira, eta horrek termino erlatiboetan % 0,42ko igoera esan nahi du (-0,02 pp).

Aurreko elementu guztien baturak Ustiapeneko Jardueren Emaitzan du bere isla, eta horrek aurreko ekitaldian lortutako maila hobetu egin du, 598,5 milioi eurotako baita, 2008an baino 3,5 milioi euro gutxiago alegia. Horrek % 0,78 esan nahi du BBATei dagokionez, aurreko % 0,82 baino zertxobait apalagoa.

Beste aktibo batzuen nariaduragatik izandako galerak (72,06 milioi eurokoak; -0,09 pp) eta beste aktibo batzuen irabaziak (51,6 milioi eurokoak) konputatu ondoren, Zergen aurreko Emaitzak 575,8 milioi euroko saldoa dauka, hau da 2008an baino 58,1 milioi euro gutxiago. Zifra honek % 0,75 egiten du BBATei dagokionez (-0,11 pp aurreko urtearekin alderatuz). Ekitaldiaren emaitza, zergen ostean, 558,2 milioi eurokoa da, % 17,3ko beherakada izan eta gero (eta horrek 116,5 milioi euroko balioa esan nahi du termino absolutuetan).

Emaiza-kontua

GALDU-IRABAZIEN KONTU PUBLIKOAK ABENDUA 2009	HEHAKF		CECA	
	% BBATen gain	aldaketa %tan BBATen gain	aldaketa %tan BBATen gain	aldaketa %tan BBATen gain
Interesak eta errendimendu asimilatuak	3,31	-1,26	3,63	-1,43
Interesak eta karga asimilatuak	1,79	-1,36	2,10	-1,50
INTERES-MARJINA	1,51	0,10	1,53	0,07
Kapital-tresnen errendimendua	0,28	-0,29	0,17	-0,12
Jasotako komisioak	0,46	-0,02	0,45	-0,04
Ordaindutako komisioak	0,04	-0,01	0,06	0,00
Eragiketa finantzarioen emaitza	0,37	0,25	0,24	0,10
Kanbio-diferentziak (garbia)	-0,01	-0,03	0,02	0,00
Beste ustiapen-produktu batzuk	0,04	-0,01	0,06	0,00
Beste ustiapen-karga batzuk	0,03	0,01	0,04	0,01
MARJINA GORDINA	2,58	-0,01	2,36	0,00
Administrazio-gastuak	1,05	-0,06	0,98	-0,09
Amortizazioa	0,14	0,01	0,10	0,00
Horniduretara egindako zuzkidurak (garbia)	0,20	0,11	0,03	-0,02
Galerak, aktibo finantzarioak hondatzeagatik (garbia)	0,42	-0,02	0,79	0,13
USTIAPENEO JARDUEREN EMAITZA	0,78	-0,04	0,47	0,00
Galerak, gainerako aktiboak hondatzeagatik (garbia)	0,09	0,03	0,13	0,10
Irabaziak (galerak), salmentako aktibo sailk. ez-arrunten bajaran	0,07	-0,04	0,05	-0,03
Diferentzia negatiboa negozio-konbinazioetan	0,00	0,00	0,00	0,00
Irabaziak (galerak), salmentako aktibo arrunt ez-sailk. eragik. etenak	0,00	0,00	-0,03	-0,08
EMAITZA ZERGEN AURRETIK	0,75	-0,11	0,37	-0,20
Irabazien gaineko zerga	0,02	0,08	0,03	0,00
Gizarte Ekintza eta funtsetara egin beharreko nahitaezko zuzkidura	0,00	0,00	0,00	0,00
AURREKO EKITALDIKO ERAGIK. JARRAITUEN EMAITZA	0,72	-0,19	0,34	-0,20
Eragiketa etenen emaitza	0,00	0,00	0,00	0,00
EKITALDIKO EMAITZA	0,72	-0,19	0,34	-0,20

*Sektorearen guztizkotik Gordailuen Berme Funtsean (FGDn) sartuak dauden Aurrezki Kutxak kendu ondoren.

Iturria: HEHAKF, CECA eta elaborazio propioak

2009an, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Interes marjina, % 1,51koa BBATen gain, Aurrezki Kutxen sektoreko batez besteko doituia baino zertxobait apalagoa da (% 1,53koa izan baita azken tasa hori), aurreko ekitaldian gertatu zen bezala, oraingo honetan bi datuen arteko aldea orduan baino txikiagoa bada ere. Alde horren arrazoia zera da, kutxa federatuek, interesengatiko eta asimilatuegatiko errendimendu txikiagoak (% 3,31BBATen gain, vs % 3,63) eduki arren, kostu finantzarioen egitura hobea da daukatela hala ere (% 1,79koa, hain zuzen ere, aurrezki-kutxen sektorearen multzoari % 2,10ekoa dagokion bitartean).

Kontu Eskalarren konposizioan aurrera egin eta sakonduz gero, ikus dezakegu Kapital Tresnen Errendimenduak hobeak direla Federazioko Kutxentzat (% 0,28 vs % 0,17), eta, beraz, tresna horiei lotutako emaitza hobeak erakusten dituztela kutxa federatuek. Eta Federazioan uzkurketa handiagoa gertatu arren lortu dira emaitza hobeak (-0,29 pp-koa, aurrezki-kutxen sektoreak 0,12 pp-koa izan duen bitartean).

Komisio garbien emaitza ere zertxobait hobe izan da Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen kasuan: % 0,42koa, sektorearena % 0,39koa izan den bitartean.

Horregatik guztiagatik, eta Marjina Gordinaren sorkuntzaren aurretik, aipatzeko modukoa da Federazioko Aurrezki Kutxek kapital-tresnei lotutako emaitza hobeak sortzen jarraitzen dutela, eta hori beraiek izandako uzkurketa beste aurrezki-kutxena baino handiagoa izan arren gertatu dela.

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek lortutako Marjina Gordinak adierazten du bitartekaritza finantzarioko jardueraren laburbilduma, nolabait esateko, eta baita lortutako errendimendu eta komisioen batura garbia ere. Federazioko Aurrezki Kutxen kasuan balio hori % 2,58koa izan da BBATen gain (ehunen bat egin du hobera), aurreko ekitaldiari begira batere aldatzen ez den sektorearen datua, % 2,36koa BBATen gain hain zuzen ere, gaudituz.

Administrazio Gastuak % 1,05eraino igo dira Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen kasuan, izanik murrizketa -0,06 pp-koa 2008ko ekitaldiarekin konparatuz gero. Sektorean, orokorrean, % 0,98koak izan dira gastu horiek, eta aurreko ekitaldiarekiko murrizketa, berriz, -0,09 pp-koa izan da. Ekitaldiko amortizazioek % 0,14ko balioa dute BBATen gain Federazio honetako Aurrezki Kutxentzat, sektore osoari dagokionez magnitude hori % 0,10ekoa den bitartean.

Horniduretara egindako Zuzkidurek ezin hobeto erakusten dute Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek egindako ahalegin garrantzitsua, datu hori % 0,20koa izan baita BBATen gain, aurreko ekitaldian izandako datua baino 0,11 pp gehiago alegia. Sektoreak bere osotasunean egindako ahalegina % 0,03an kokatzen da, eta horren ondorioz -% 0,02ko beherakada izan du aurreko ekitaldiarekin konparatzen badugu. Eta Aktibo Finantzarioen Narriaduratik sortutako Galerei dagokienez, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxak % 0,42an mantentzen diren arren BBATen gain, aurreko datua -0,02 pp-tan zertxobait hobetuz, sektorean oro har % 0,79raino iristen dira galera horiek, 0,13 pp-ko gorakada nabarmen eta esanguratsuekin.

Aurreko eragiketa guztien ondorioz, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Ustiapeneko Jardueren Emaitza % 0,75koa izan da BBATen gain, 2008ko datua -0,04 pp-tan gutxitu ondoren. Magnitude hori % 0,47koa izan da sektore osoarentzat, oro har, aurreko urtean lortutako mailari eutsiz.

Azkenik, Zergen aurreko Emaitza 0,75 pp-ko balioraino iritsi da 2009an Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen kasuan, eta -0,11 pp-ko murrizketa izan du 2008ko datuarekiko, sektorearen multzoak lortutako emaitza bikoiztuz (% 0,37an kokatzen da sektorearen datua, bere murrizketa ere bikoitza izan baita, -0,20 pp-koa alegia).


Laburbilduz, bitartekaritzako jarduerak, zentzu hertsian hartuz, sortutako marjinak kasu bietan antzekoak diren arren,

Aurrezki kutxen kasuan sendotu egiten dira datu horiek eragiketa finantzarioek emaitza hobekak lortzen dituztelako eta aktibo finantzarioen narriaduragatiko galerei eutsi egin zaielako (sektore osoan, aitzitik, gorakada handia izan dute galera horiek). Horrela, bada, Ustiapen Marjina islatuak agertzen diren jardueraren emaitza globalak askoz ere positiboagoak jotzen dira Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen aldean; izan ere, gainerako aktiboen galeretan eragin txikiagoa izatea lortu ondoren, Federazioko Aurrezki Kutxek erakusten duten Zergen aurreko Irabazia sektorearen batez bestekoaren halako bi baita. Aurreko azalpen horiei guztiei esker, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek lortutako emaitzen balorazioa positibotzat har daiteke, urtean zehar bizi izandako zailtasunak kontuan hartuta.

Bulegoak - Enpleguak

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek 7.536 pertsona enplegatu dituzte guztira 2009an (-% 6,4), eta horietatik % 30,4 bere eguneroko lana bere erakunde finantzarioaren jatorrizko lurraldetik kanpo kokatua dagoen bulegoren batean egiten duten enplegatuak dira. Langile kopuruaren murrizketa hori finantza-merkatuaren egungo baldintzek ezarritako lehiakortasunaren hobekuntza eta arrazionalizazioko politika ezinbestekoaren baitan ulertu eta kokatzen da.

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen bulego fisikoak dira erakunde horiek beren bezeroekiko duten topagune nagusia, zerbitzuak eskaintzeko orduan. 2009ko urte-amaieran, zerbitzua emateko bulegoen kopurua 1.219 bulegokoa zen (-% 4,01), eta horien artean sartzen dira baita bulego automatizatuak ere. Horietatik, % 46,3 aurrezki-kutxa horien jatorrizko lurraldeetatik kanpo aurkitzen dira, azken urteotan erakundeek jarraitu duten hedapen-prozesu gogorren ondorioz.



Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek dinamismo handia erakusten dute ordainbideekin lotutako zerbitzuetan, eta horrela ordainbide elektronikoek aukera eta sare zabala jartzen dute euren bezeroen eskura. Federazioko erakundeek gure lurralde geografikoetan erabilgarri dauden sistemen barruan jaulkitako 3.289.851 txartelak (EURO 6000, MasterCard, VISA, Maestro, etab.) horren froga ezin hobea dira. Zerbitzua osatzeko, 2.291 kutxazain automatikoren sarea (2.336 ziren 2008an) eta merkataritzako saltegi nahiz dendetan ezarritako 26.565 saltokiko terminalak aipatu behar dira (25.158 ziren 2008an).

Dimensio sozjala
6

Lurraldearekiko lotura, hurbileko eremuaren garapen ekonomiko eta sozialaren aldeko apustua eta izaera soziala dira Aurrezki Kutxen ezaugarri behinenak, euren fundaziotik bertatik indarrean mantentzen direnak. Eta hori guztia ezin argiago islatzen da praktikan, aurrezki-kutxen bitartekaritza eta zerbitzu-prestazioko jarduera arruntak eragindako irabaziak banatzeko orduan. Izan ere, kutxen kapitalizazioa eta kaudimena sendotzera bideratutako erreserbak eratzeko egindako zuzkidurez gain, bere irabazien zati bat atzera gizartera itzultzen baita, Gizarte Ekintza esaten zaionaren bitartez.

2009an Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek 213,5 milioi euro bideratu dituzte euren Gizarte Ekintzara, eta zifra horrek kutxen irabazi garbiaren % 38 hartzen du.

Lurraldearekiko duten lotura estua da Aurrezki Kutxen ezaugarri funtsezkoa eta gainerako erakunde finantzarioetatik bereizten dituen. Ezaugarri horrexek ezartzen die bere bokazio sozial nabarmena, eta horri esker hartzen dute kutxek beren jarduera aurrera daramaten lurralde-eremuaren garapen ekonomiko eta sozialaren aldeko apustua, jarduera-eremu geografiko horietako pertsonen eta ekonomiaren garapenaren bitartez hain zuzen ere. Hain da nabarmena kutxen orientazio soziala ezen erakunde-talde horren fundazio-unean bertan sortutako ezaugarri bereizletzat har daitekeela.

Bokazio sozial horren isla bezala, nabarmentzeko modukoa da bitartekaritzako eta zerbitzu-prestazioko jarduera arruntean sortutako irabaziaz banatzeko unean kutxek duten modu berezia. Izan ere, erakundeen kapitalizazio eta kaudimen propioa sendotzera bideratutako erreserbak eratzeko dagozkion zuzkidurak egiteaz gain, irabazien zati bat gizartera itzultzen baita, Gizarte Ekintza esaten zaionaren bidez.


Askotarikoak eta oso diferenteak dira, denboran zehar, bokazio hori gauzatzeko erabili izan diren moduak eta guztien ezaugarri komuna izan da betiere hiritarren premiak asetzen saiatzea, jorratutako alor eta eremu desberdinetan.

Denborak aurrera egin ahala, gizartearen premiak eta beharrianak aldatuz joan dira, eraldatuz, eta oker ibiltzeko lotsarik gabe, esan daiteke aurrezki-kutxen Gizarte Ekintzak ere bere eraldaketako bide paraleloa egin duela aldi berean, bere jarduera aurrera daramaneko gizartearen premietara egokitzen saiatuz, lehenasunezko interesguneak etengabe berregituratu eta egokituz.

Azken garaiotan, eta erakunde finantzarioak erantzukizun sozial korporatiboa balioesten hasi direnetik, aurrezki-kutxek aspaldidanik egindako lana aitortu eta onartzen da, betiere inor baztertu edo kanpoan ez uzteko irizpide argi eta garbiarekin biztanleriaren geruza zabalei inolako irabazi-asmorik gabe hainbat era eta moldetako zerbitzuak eskaintzen zizkietenean.

GIZARTE EKINTZA

Funtsa eta Aplikazioa




GE Aplikazioa	177,9	175,9	179,4	188,2	188,2	222,7
GE Funtsa	250,2	246,1	246,1	298,8	286,2	342,8

Zenbatekoa milioi eurotan

Federazioko Aurrezki Kutxen kasuan, kide guztiak multzoan, eta horietako bakoitzak bere aldetik burututako jarduera soziala oso garrantzitsua da, eta lurraldeari eta hiritarrei laguntza emateko filosofiaren barruan txertatzen da. Gizarte Ekintza hiru jarduera-ildo nagusitan gauzatzen da, batez ere: Gizarte Ekintza Propioa, batetik, eta hor sartzen dira Aurrezki Kutxak berak zuzenean bultzatu edo sustatzen dituen ekimenak eta jarduerak; Lankidetzako Gizarte Ekintza, bestetik, eta kasu honetan gizarteko jarduerak sustatzeko ahalegina beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuekin partekatzen da, eta Kanpoko Gizarte Ekintza azkenik, eta hemen Aurrezki Kutxek baliabide ekonomikoak jarriz egiten dute euren ekarpena, jardueren kudeaketan parte hartu gabe, alderdi hori erakunde finantzarioaren kanpoko beste sustatzaile batzuen esku geratzen baita.

Azken urteotan izandako eboluzioak erakusten Gizarte Ekintza Propioaren modalitatearen barruan sartzen diren jarduerak pisu espezifiko handiagoa hartu dutela, modalitate hori bilakatu baita gizarte-jarduera garatzeko formatu nagusia eta erantzukizun sozial korporatiboa gauzatzeko tresnarik egokiena aldi berean.

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Gizarte Ekintzako Funtza 342,8 milioi euroko zenbaterokira iritsi zen 2009ko itxieran. Horrez gain, Federazio honetako kide diren erakundeek 213,5 milioi euroko baliabideak eskaini dizkiote Gizarte Ekintzari aurtengo ekitaldian. Egungoa bezalako uzkurraldi eta murrizketa-giroan, aurreko ekitaldiaren esateko ia berdina zen (214 milioi euroko) zifrari eusteak argi eta garbi erakusten digu Federazioko Aurrezki Kutxen aldetik Gizarte Ekintzako jarduerak lehenesteko dagoen bokazio sendoa.




Aitzitik, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek Gizarte Ekintzari egindako ekarpena EAeko eta Nafarroako BPG bateratuari begira aztertzen badugu, ahaleginak eta konpromisoak etengabe gora eginez jarraitzen dutela ikusiko dugu, 2009an milako 3,25eko muga erdietsi baita, azken hamarkada honetako maximo berria jarriz.



Gizarte Ekintzarekiko konpromisoa aztertzeko beste aukerako ikuspegi bat izan daiteke aztertzea ea erakunde finantzario hauek Gizarte Ekintzako jarduerekin euren eragin-lurraldeetako zein biztanleri egiten dieten mesede. Estatistikako Institutu Nazionalak (INEK) lurralde bakoitzerako argitaratutako estimazioko datuak hartzen baditugu, EAeko eta Nafarroako biztanle bakoitzari "dibidendu sozialaren" baliokide gisa emandakoa 78,2 eurokoa dela ikusiko dugu, aurreko ekitaldiari dagokion datua baino zertxobait handiagoa. Biztanle bakoitzeko egindako ekarpenaren ikuspegitik aztertuta ere, Federazioko Aurrezki Kutxek argi eta garbi uzten dute, behin berriz, gizartearekiko daukaten konpromisoa, lurraldeko aberastasuna sortzeko ahaleginaren eta euren jatorriko eremu geografikoko biztanleei egindako esleipenen ekonomikoen bitartez.

GIZARTE EKINTZAREN EKARPENA


Euroak biztanleko, EAEn eta Nafarroan



Bestetik, Gizarte Ekintzara bideratutako baliabideak zein motatako jardueretan gauzaten diren begiratzen badugu, argi azaltzen da Gizarte eta Osasun laguntzako jarduerak direla horien helburu nagusia, 135 milioi euroekin (+% 1,8), alegia totalaren % 48,9arekin. Jarraian datoz, euren garrantzia ordenaren araberako hurrenkeran, Kulturako jardueretara bideratutakoak, horiei 76,3 milioi euro eskaini baitzaizkie (+% 14), eta horrek totalaren % 27,6% esan nahi du. Hezkuntza eta Ikerketaren alorrak ere arreta garrantzitsua jaso du, eta helburu horretara bideratu dira 49,3 milioi euro (+% 19%), hau da baliabide guztien % 17,8. Azkenik, baina ez garrantzia gutxiagorekin hala ere, Ondare historiko eta naturalari dagozkion jarduerak daude, 15,4 milioi euro bideratu baitira xede edo helburu horietara (-% 15%), eta horrek totalaren ia % 6 hartzen du.

HEGO EUSKAL HERRIKO AURREZKI KUTXEN GIZARTE EKINTZA

Bideratutako baliabideen banaketa, jarduera-eremuka



Bere bokazio soziala aurrera eramateko beharrezkoa den giza kapitalari begiratzen badiogu, berriz, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek 645 pertsona daukate kontratatuak modu finkoan beren plantilletan, eta horiei behin behineko 146 enplegatu gehiago erantsi behar zaizkie; horrela, beraz, 791 dira guztira Gizarte Ekintzako jarduerekin loturaren bat, dela iraunkorra dela aldi baterakoa, duten pertsonak.



Egoera finantzario publikoak

7

Balantze Publikoa. 2009ko Abendua

AKTIBOA	2009 Balio absolutua	2008 Balio absolutua
1. Kutxa eta gordailuak banku zentraletan	2.548.383	1.201.896
2. Negoziazio-zorroa	451.880	272.803
2.1. Gordailuak kreditu-erakundeetan	0	0
2.2. Bezeroei emandako kredituak	0	0
2.3. Zorra adierazten duten baloreak	72.058	48.281
2.4. Beste kapital-tresna batzuk	32.084	34.202
2.5. Negoziazio-eratorriak	347.738	190.320
3. Beste aktibo finantzario batzuk arrazoizko bere balioan, eta galdu-irabazietan dituzten aldaketak	158.201	140.665
3.1. Gordailuak kreditu-erakundeetan	0	0
3.2. Bezeroei emandako kredituak	0	0
3.3. Zorra adierazten duten baloreak	158.201	140.665
3.4. Beste kapital-tresna batzuk	0	0
4. Saltzeko dauden aktibo finantzarioak	6.011.564	6.073.520
4.1. Zorra adierazten duten baloreak	5.551.081	5.507.477
4.2. Beste kapital-tresna batzuk	460.483	566.043
5. Kreditu-inbertsioak	60.142.909	60.514.295
5.1. Gordailuak kreditu-erakundeetan	2.422.322	3.549.015
5.2. Bezeroei emandako kredituak	57.720.587	56.965.274
5.3. Zorra adierazten duten baloreak	0	6
6. Inbertsio-zorroa, mugaegunean	1.047.226	1.055.555
7. Aktibo finantzarioen doikuntzak, makro-estaldurak direla medio	0	0
8. Estaldurako eratorriak	444.842	224.919
9. Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak	228.240	163.641
10. Partaidetzak	5.140.785	4.933.017
10.1. Erakunde elkartuak	225.238	257.018
10.2. Erakunde taldeanitzak	12.082	6.091
10.3. Taldeko erakundeak	4.903.465	4.669.908
11. Pentsioei lotutako aseguru-kontratuak	897	781
13. Aktibo materiala	1.682.107	1.697.405
14. Aktibo ukiezina	49.707	50.257
15. Aktibo fiskalak	418.891	342.701
16. Gainerako aktiboak	70.463	150.449
AKTIBOA, GUZTIRA	78.396.095	76.903.660

Zenbatekoa milaka eurotan

Balantze Publikoa. 2009ko Abendua

PASIBOA	2009 Balio absolutua	2008 Balio absolutua
1. Negoziazio-zorroa	325.609	177.633
1.1. Banku zentralen gordailuak	0	0
1.2. Kreditu-erakundeen gordailuak	0	0
1.3. Bezeroen gordailuak	0	0
1.4. Balore negoziagarriek ordezkatzen dituzten zordunketak	0	0
1.5. Negoziazioiko eratorriak	325.609	177.633
1.6. Balorren posizio laburrak	0	0
1.7. Beste pasibo finantzario batzuk	0	0
2. Beste pasibo finantzario batzuk arrazoizko bere balioan, eta galdu-irabazietan dituzten aldaketak	0	0
2.1. Banku zentralen gordailuak	0	0
2.2. Kreditu-erakundeen gordailuak	0	0
2.3. Bezeroen gordailuak	0	0
2.4. Balore negoziagarriek ordezkatzen dituzten zordunketak	0	0
2.5. Menpeko pasiboak	0	0
2.6. Beste pasibo finantzario batzuk	0	0
3. Pasibo finantzarioak, amortizatutako kostuan	68.918.003	68.154.922
3.1. Banku zentralen gordailuak	1.720.443	1.833.185
3.2. Kreditu-erakundeen gordailuak	3.138.016	2.616.890
3.3. Bezeroen gordailuak	57.803.484	59.825.120
3.4. Balore negoziagarriek ordezkatzen dituzten zordunketak	4.220.284	2.141.735
3.5. Menpeko pasiboak	1.512.859	1.160.749
3.6. Beste pasibo finantzario batzuk	522.917	527.243
4. Pasibo finantzarioen doikuntzak, makro-estaldurak direla medio	0	0
5. Estaldurako eratorriak	52.173	42.034
6. Salmentako aktibo ez-korronteekin lotuak dauden pasiboak	0	0
8. Hornidurak	614.303	410.792
8.1. Pentsioetarako funtsak eta antzeko obligazioak	250.422	219.193
8.2. Zergetarako zuzkidurak eta beste gorabehera legal batzuk	3.000	6.000
8.3. Arrisku eta konpromiso kontingenteetarako hornidurak	196.860	112.084
8.4. Beste hornidura batzuk	164.022	68.374
9. Pasibo fiskalak	270.757	284.782
9.1. Arruntak	142.366	128.453
9.2. Geroratuak	128.391	156.329
10. Gizarte Ekintzako Funtsa (Aurrezki Kutxak eta Kreditu Kooperatibak soilik)	342.749	286.199
11. Gainerako pasiboak	103.421	76.441
12. Ageriko Kapital itzulgarria	0	0
PASIBOA, GUZTIRA	70.627.015	69.435.973

Zenbatekoa milaka eurotan


Balantze Publikoa. 2009ko Abendua


ONDARE GARBIA	2009 Balio absolutua	2008 Balio absolutua
1. Funts propioak	7.318.644	6.977.211
1.1. Kapitala edo zuzkidura-funtsa	180.325	180.325
1.2. Jaulkipen-prima	0	0
1.3. Erreserbak	6.580.106	6.122.133
1.4. Beste kapital-tresna batzuk	0	0
1.5. ken: Balore propioak	0	0
1.6. Ekitaldiko emaitza	558.213	674.753
1.7. ken: Dibidenduak eta ordainketak	0	0
2. Balorazioagatiko doikuntzak	450.436	490.476
2.1. Salmentarako dauden aktibo finantzarioak	449.721	490.892
2.2. Efectibo f uxuen estaldura	715	-416
2.3. Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldurak	0	0
2.4. Kanbio-diferentziak	0	0
2.5. Salmentarako dauden aktibo ez-korronteak	0	0
2.7. Balorazioagatiko gainerako doikuntzak	0	0
ONDARE GARBIA, GUZTIRA	7.769.080	7.467.687
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	78.396.095	76.903.660
PRO-MEMORIA		
1. Arrisku kontingenteak	6.083.761	6.294.330
2. Konpromiso kontingenteak	10.544.671	10.349.943

Zenbatekoa milaka eurotan

GALDU-IRABAZIEN KONTU PUBLIKOA		2008	2008
balio absolutuak		HEHAKF	HEHAKF
1.	Interesak eta errendimendu asimilatuak	2.546.812	3.372.750
2.	Interesak eta karga asimilatuak	1.382.664	2.327.782
A)	INTERES-MARJINA	1.164.149	1.044.968
4.	Kapital-tresnen errendimendua	216.241	418.502
5.	Jasotako komisioak	354.037	354.583
6.	Ordaindutako komisioak	34.087	39.302
8.	Eragiketa finantzarioen emaitzak (garbia)	281.325	85.351
8.1	Negoiazio-zorroa	99.325	-26.213
8.2	Beste tresna finantzario batzuk, arrazoizko balioan, aldaketekin Galdu-Irabazietan	6.236	-41.758
8.3	Tresna finantzario ez baloratuak, arrazoizko balioan, aldaketekin Galdu-Irabazietan	120.119	157.688
8.4	Bestelakoak	55.645	-4.366
9.	Kanbio-diferentziak (garbia)	-3.927	16.224
10.	Beste ustiapen-produktu batzuk	33.688	36.509
11.	Beste ustiapen-karga batzuk	26.910	21.700
B)	MARJINA GORDINA	1.984.516	1.895.135
12.	Administrazioko gastuak	808.662	815.842
12.1	Pertsonaleko gastuak	550.355	553.992
12.2	Administrazioko beste gastu orokor batzuk	258.307	261.850
13.	Amortizazioa	106.607	97.637
14.	Horniduretara egindako zuzkidurak (garbia)	150.295	61.244
15.	Aktiboak hondatzeagatiko galerak (garbia)	320.399	318.389
15.1	Kreditu-inbertsioak	309.113	307.493
15.2	Tresna finantzario ez baloratuak, arrazoizko balioan, aldaketekin Galdu-Irabazietan	11.286	10.896
C)	USTIAPENEN KARGUEN EMAITZA	598.553	602.023
16.	Gainerako aktiboak hondatzeagatiko galerak (garbia)	72.060	48.196
16.1	Merkataritzako funtsa eta beste aktibo ukiezin bat	3.974	0
16.2	Beste aktibo batzuk	68.086	48.196
17.	Irabaziak (galerak), salmentako aktibo sailk. ez-arrunten bajaran	51.565	81.470
18.	Diferentzia negatiboa negozio-konbinazioetan	0	0
19.	Irabaziak (galerak), salmentako aktibo arrunt ez-sailk. eragik. etenak	-2.243	-1.329
D)	EMAITZA ZERGEN AURRETIK	575.815	633.968
20.	Irabazien gaineko zerga	17.602	-40.785
21.	Gizarte Ekintza eta funtsetara egin beharreko nahitaezko zuzkidura	0	0
E)	AURREKO EKITALDIKO ERAGIK. JARRAITUEN EMAITZA	558.213	674.753
25.	Eragiketa etenen emaitza (garbia)	0	0
F)	EKITALDIKO EMAITZA	558.213	674.753

Zenbatekoa milaka eurotan



The background features a complex, abstract geometric pattern. It consists of various polygons, including squares, rectangles, and trapezoids, arranged in a non-repeating, interlocking fashion. The colors used are a range of earthy tones: dark brown, light beige, cream, yellow, orange, olive green, and grey. The shapes are separated by thick, dark brown lines, creating a grid-like structure. The overall effect is a vibrant, textured, and modern design.

Hego Eukal
Herriko Aurrezki
Kutxen Federazioa